• Scolariser dès 2 ans 62
• Avoir 2 ans en Europe 64
• Le "oui-mais" de l'OMEP 69
• L'AGIEM : l'école doit s'adapter aux enfants 72
• Je suis tout petit et j'apprends 74
• Bloc-notes 76




# VELA MAYOR

*10. zkia • 1997 urtea*



## SUMARIO


EDITORIAL ..... 5
EDUCACIÓN Y EMPLEO EN EL UMBRAL DEL SIGLO XXI
*Javier Díaz Malledo* ..... 7
LA FORMACIÓN PARA EL EMPLEO EN ESPAÑA *Jesús Manzano* ..... 13
TECNOLOGÍA, TRABAJO Y EDUCACIÓN SECUNDARIA
*Javier Baigorri* ..... 20
UNA OPINIÓN SOBRE EL EMPLEO *Vicente Verdú* ..... 29
CIENCIA, TECNOLOGÍA Y SOCIEDAD *Javier Ibáñez* ..... 33
FORMACIÓN Y EMPLEO DESDE LA PERSPECTIVA EMPRESARIAL
*Eloy Parra* ..... 39
COLABORACIÓN EMPRESA-ESCUELA: LAS COOPERATIVAS
*Luis María Álvarez Gerediaga* ..... 47
UNA EXPERIENCIA: ECONOMÍA SOCIAL EN FP
*Luis María Álvarez Gerediaga* ..... 54
POR QUÉ Y CÓMO EDUCAR PARA EL TRABAJO *Marisa Pereira* ..... 59
PROGRAMAS EDUCATIVOS CONTRA LA EXCLUSIÓN *Pilar Moltó* ..... 66
LAS MATEMÁTICAS ANTE EL EMPLEO *José Portela* ..... 73
FORMACIÓN PARA EL EMPLEO EN GALICIA *Jaime López Cossío* ..... 81


*Agradecemos a Jesús Manzano Cano la colaboración especial que nos ha prestado en la preparación de este número monográfico.*

# Artikulu aipagarria



**CONVERSACIÓN CON ELINOR GOLDSCHMIED. "La persona de referencia", Infancia 44, julio-agosto 1997, 12-17 orr.**

Hain ezaguna den Goldschmied hezitzailea, artikulu honetan erreferentzia pertsonataz mintzatzen da. Bere esanetan, estabilitatea, erregulartasuna eta harreman pertsonalak dira ardatz nagusiak gai honetan. Autore honek, funtsean, bilatzen duena zera da: haurren eta familien harrera hobetuko duen antolaketa.

**JUBETE, M.: "Practiquemos los derechos de las niñas y los niños". Infancia 45, septiembre-octubre 1997, 5-12 orr.**

Haurren eskubideak ez dira beti errespetatzen. Zergatik? Haurra herritar osoa ote da? Errespetatzen al ditugu haurraren sekretu edo intimitate eskubidea? Nola dakigu umea zoriontsua den?. Oso artikulu interesgarria eztabaida sortzeko.



**BERNADET, M.: "El masaje, una agradable experiencia", Infancia 45, septiembre-octubre, 1997, 16-20 orr.**

Ume txikiekin praktikatzen den masaia harreman bide egokia dela esan dezakegu, eta bide batez bizitzen ikasteko laguntza zoragarria. Artikuluaren egileak, Haur Hezkuntzan (0-3 urte) edukitako esperientzia kontatzen digu eta aldi berean animatzen gaitu teknika horiek ikasten.

**GARCIA MERINO, M.: "Interacción entre iguales", Cuadernos de Pedagogía, 263, noviembre 1997.**

Artikulu hau "El valor de la cooperación" monografikoaren barnean agertzen zaigu, eta bera azpimarratzen dugu, Haur Hezkuntzan kooperazio lana bultzatzeko lan proposamena baita. Bertan, prozedura eta balore oso garrantzitsuak bultzatzen dira, hala nola, norberaren eta besteen estima, kolaborazioa, norberaren kontrola, autonomia, etab. Oso planteamendu aberatsa.

**HAINBAT EGILE: "La afectividad necesaria", Cuadernos de Pedagogía, 261, septiembre 1997.**

Oso gai interesgarria monografiko honek aurkezten diguna: bizitzaren arlo desberdinetan, baita ikaskuntzan ere, afektibitatearen presentzia eta garrantzia.

Hausnarketaz gain, gai hau jorratzeko hainbat esperientzia eta estrategia eskaintzen digu lan honek. Baliogarria.



**AGRAMUNT, R.; LOPEZ, R.; SERRAT, A;.: "Dinámica de grupos para la educación infantil", Aula 65, octubre, 85-97 orr.**

Nahiz eta oso zaila izan talde dinamikaz hitz egitea ume txikien munduan, badaude teknikak talde lanerako gaitasunak prestatzen dituztenak.

Gai honen inguruan hausnarketa interesgarria eskaintzen digute autoreek eta Haur Hezkuntzako, 2 urtetik gorakoentzat, ekintza proposamen konkretu batzuk. Oso artikulu praktikoa eta erabilgarria.

**BELLOCH, M.: "La resolució de problemes i l'activitat experimental del pàrvul", Infància 98, setiembre-octobre 1997, 18-23 orr.**

Mundu fisikoa ezagutzeko, haurrek daukaten trena garrantzitsua, esperimentazioa da. Artikulu honen autoreak, imanen propietateekin erlazionatuak dauden hainbat problema planteatzen dizkigu, eta umeen ikaskuntzarako dauzkaten abantail psikopedagogikoak aurkeztu.



# Gai monografikoa:



Planteatu dugun gai honi buruzko hausnarketa egiten badugu, konturatuko gara Hezkuntzako profesionalak "tratu txarren lekuko" garela eta haurraren segurtasunean erantzunkizun esanguratsua daukagula.

Honenbestez, gure ustetan, Hezkuntzako profesionalon zeregina da, beti ere, hezkuntza integrala bermatzea. Beraz, erne egon behar dugu gure ikasleen egoeretan, batez ere arrisku egoeren aurrean, neurriak hartzeko, umeen bizitza eta zoriontasuna dagoelako jokoan.

# Tratu txarrak



Gai delikatu eta grabe honen inguruan gure ekarpen apala eskaintzeko asmoarekin bildu ditugu profesional batzuen hausnarketak eta proposamenak.
Profesional hauek administrazioko teknikariak, eskoletako irakasleak eta Gobernuz Kanpoko Elkarteetako (O.N.G. etako) militanteak dira. Zaila egin zaigu irakasleen ekarpenik lortzea, gaia oso konplexua baita.

Horrela, bada, gure eskerrik beroenak lan honetan murgilduta daudenei eta gurekin hain esku-zabal jokatu dutenei, ahalbideratu baitigute gaitz hau piska bat bederen kaleratzea.

## Bibliografia

# Tratu txarrak. Hainbat irakurgai eskolan arazoaz jabetzeko

*Elena Redondo Hermosa, psikologoa*
*Ramón Muñoz Cano, orientatzailea*



MI BEBE Y YO. 60. zkia. 97ko maiatza

Sarritan, tratu txarren arazoa gugandik urrun dagoen zerbait ulergaitza dela iruditzen zaigu; uste hori daukagu haurrekin gabiltzanok ere, batez ere irakasleek eta. Hau egia borobila da, nahiz eta literatura zientifikoak ziurtatzen duen eskola leku ezin aproposagoa dela arazo larri hau agerian jarri eta prebenitzeko. Garbi dago, beraz, tratu txarren gaineko hausnarketa sakona eginez gero, hezkuntza munduko profesionalek arazoa prebenitu eta neska-mutikoen ongizatea bermatu ahal izango dutela.

Gai bat ondo ezagutzeko, lagungarria izaten da oso esperiantziak trukatzea. Pertsona asko dago arazoa ikertzen, hausnartzen eta aztertzen ari dena. Gure asmoa da gaiaren inguruan jakitun direnen artikulu eta liburuen zerrenda hona ekartzea.

Egin dugun irakurgai-aukeraketa honetan, arazoaren hainbat alderdi bildu nahi izan dugu. Haurrei ematen zaien tratu txarra orokorrean aztertzeaz gainera, eskolan gertatzen diren tratu txar mota bi hauei erreparatuko diegu bereziki: tratu txar instituzionala eta haurren arteko tratu txarra (*bullying*)*.

## 1.

Lehen atalean, tratu txarrak oro har aztertzeko, ondoko irakurgai hauek aukeratu ditugu:

### * DE PAÚL OCHOTORENA J.; ARRUABARRENA MADARIAGA M.I. (1996): *Manual de Protección Infantil*. Bartzelona: Masson.

Zer egin dezaketen profesionalek haurrak babesteko: horixe da eskuliburu honen mamia. Hainbat zatik osatzen dute esku-

**Tratu txarron esanahia jakin nahi izanez gero, jo beza irakurleak autore berberek idatzitako artikulu honetara: "Tratu txarren prebentzioa eskolan".*

liburua. Lehen zatian, haurraren babesgabeko egoerak zeintzuk izan daitezkeen aztertzen da. Batez ere tratu txar egoerak nabarmentzen dira. Bigarren zatia, berriz, lege-markoaren hausnarketa da. Hirugarren zatia tratu txarrei aurre egitean jarraitu beharreko pausuak deskribatu eta aztertzen dira. Bukatzeko, azken zatia oinarritzen da prebentzioan eta eskuhartzeko baliabideetan: familia, laguntza eta babes-zerbitzuak, adopzioa...

***MARTINEZ ROIG A.; DE PAUL J. (1993): *Maltrato y abandono en la infancia.* Bartzelona: Martínez Roca.**

Gaian sartzeko liburu aproposa dugu hau. 6 ataletan, ondoko gaiok ikutzen dira: kontzeptualizazioa eta eragina, arrisku-faktoreak eta tratu txarren ondorioak; detektatzea, tratamendua eta prebentzioa.

***LÓPEZ SÁNCHEZ F. (1996): *Prevención de los abusos sexuales de menores y educación sexual.***

Izenburuak adierazten duen legez, sexu-abusua du ardatz. Sexu-abusuaren eragina aztertzen du; baita erasoaren zirkunstantziak eta erasotzailearen zein biktimaren ezaugarriak ere. Egileak prebentzio programa bat proposatzen du; bertan, haur, guraso eta haurrekin dabiltzan profesionalek hartu beharreko jokabideak azaltzen dira.

***LOPEZ F.; HERNANDEZ A.; CARPINTERO E. (1995): Los abusos sexuales de menores: concepto, prevalencia y efectos. *Infancia y aprendizaje.* 71 orr. 77-98.**

Sexu-abusua du gai nagusi. Kontuan hartzen ditu nazioarteko literatura eta autoreek eurek Espainian egindako ikerketa-lana. Ikerketa honetan jasotako datu ugari dakar, erasotzaile eta biktimei buruzkoak. Ikerketa hau Espainian sekula egin den osoena da. Artikuluaren bukaeran, zenbait ondorio dago.

***PALACIOS J.; MORENO M.C.; JIMINEZ J. (1995): El maltrato infantil: Concepto, tipos, etiología. *Infancia y Aprendizaje.* 71, 7-21 orr.**

Tratu txarrena arazo konplexua da. Oso zaila da kontzeptualizatzen. Artikulo honetan tratu txar mota desberdinen azalpena egiten da, definizio eta ezaugarriak barne. Era berean, tratu txarrei buruzko azalpen etiologiko desberdinak aipatzen ditu. Tratu txarren konplexutasunaz jabetzeko azalpen ugari dakar.

**2.** Eskola-adina daukaten haurrei dagokienez, tratu txarren gaineko irakurgai hauek aukeratu ditugu:

***CEREZO M.A. (1996): El maltrato físico y emocional en la primera infancia. *Bienestar y Protección Infantil.* Revista de la Prevención del Maltrato Infantil, 4. zenb. 20-35 orr.**

Gida bat da, 0-tik 5 urtera bitarteko umeek jasaten dituzten tratu txarren gaineko analisia. Azaltzen dituen gaien artean, hauxek aipa daitezke: tratu txarrek haurrengan duten eragina, tratu txarrak saihesteko moduak, tratu txarren ondorioak arintzeko bideak...

***CEREZO M.A. (1995): El impacto psicológico del maltrato: primera infancia y edad escolar. *Infancia y Aprendizaje.* 71, 135-157 orr.**

Tratu txarrak haurraren jokabideari, alderdi soziokognitiboari eta emozionalari eragiten die. Artikulu honek azaltzen ditu tratu txarrak haurrari dakarzkion ondorio psikologikoak.

***CEREZO M.A. (1993): El maltrato infantil en las distintas etapas evolutivas de la infancia: Primera infancia: *III Congreso Estatal sobre Infancia Maltratada.* Asociación Madrileña para la prevención de los malos tratos en la infancia.**

Lan hau umearen lehen bost urteetan gertatzen diren tratu txarretan oinarrituta dago. Azpimarragarria da lanaren praktikotasuna, jardunbideak iradoki ezezik, ikertu beharrekoak ere aipatzen dituelako.

***MUÑOZ CANO R. (1993): El maltrato infantil en las distintas etapas evolutivas de la infancia: Adolescencia. *III Congreso Estatal sobre Infancia Maltratada.* Asociación Madrileña para la prevención de los malos tratos en la infancia.**

Ikuspegi ebolutibotik abiatuz, nerabezaroa du ardatz. Nerabezaroan gertatzen diren tratu txarren arriskua du aztergai. Etxetik ihes egiten duten nerabeen kasuen gaineko hausnarketak agertzen dira.



CRECER FELIZ. 104. zkia. 97ko maiatza

3. Tratu txarrak eta eskolaren inguruko argitalpenek gora egin dute azken aldi honetan. Horietako argitalpen batzuk komentatuko ditugu jarraian:

***SANCHEZ ESPINOSA, E.M. (1993): *Guía de atención al maltrato infantil.* Sevilla: Asociación andaluza para la Defensa de la Infancia y prevención del Maltrato infantil ADIMA.**

Baliabide aproposa izan daiteke haurrekin dabiltzan profesionalendako. Tratu txarrari buruzko iradokizunak, jardunbideak eta lan-materialak dakartza. Zati bat Hezkuntzako profesionalei zuzenduta dago. Hor azaltzen da tratu txarra nola jarri agerian, nola prebenitu, zer egin...

***LÓPEZ MARTÍN, E.; ÁLVAREZ GONZÁLEZ M. (1996): *El Maltrato Infantil: Guía para maestros.* Murtzia: Asociación Murciana de Apoyo a la Infancia Maltratada, AMAIM.**

Haurra babestu beharraz eta zeregin horretan irakasleak jokatu beharreko paperaz jarduten dute egileek. Gida hau hainbat atalek osatzen dute. Atal bakoitzak galdera bati erantzuten dio: tratu txarrik egon badago? Zergatik da hain garrantzitsua irakaslea? Zer gertatzen zaio haurrari? (tratu txarren adierazleak) Eta gurasoak zer? Nora jo? Zer egin dezaket?

***ARRUABARRENA MADARIAGA M.I.; DE PAUL OCHOTORENA J. (1988): *El papel del maestro y la escuela en el abordaje del problema del maltrato y abandono infantil.* Giza-Ongizateko Dokumentuak. Eusko Jaurlaritza.**

Bilduma bateko liburukia da. Liburuki hau irakasle eta Hezkuntza munduko profesionalei zuzenduta dago. Helburua da profesionalak tratu txarren arazoaz informatu eta janztea.

***DE MAEYER GREGIE; VANMECHELEN KOEN (1996): *Juul.* Salamanka: López Argitaletxea.**

Liburu honetan, kontakizun eta marrazkien bitartez, haur baten barne sentimentuak adierazten dizkigu egileak, beste haur batzuengandik tratu txarrak jasaten dituen haur baten alderdi emozionala.

***FERNÁNDEZ GARCÍA I. (1996): Estudio y medios de intervención de la violencia interpersonal en Centros Educativos. *Bienestar y Protección Infantil.* Revista de la Federación de Asociaciones de la Prevención del Maltrato Infantil, 2. zenb., 96-112 orr.**

Eskolan haurren artean gertatzen diren tratu txarrak aztertzen ditu: jokabide agresiboa, erasoak... Hausnarketa teorikoaz gain, zelan eskuhar daitekeen ere azaltzen du autoreak: hezkuntzako profesionalen sentsibilizazioa, sarrera kurrikularra eta ikaslegoaren partehartze aktiboa eta, azkenik, arazoaren eragileei arreta zuzena eskaintzea.

***LAPETRA CODERQUE P. (1994): La comunidad escolar y el maltrato infantil. Asociación Vasca para la ayuda a la Infancia Maltratada (AVAIM). *I Jornadas sobre Infancia Maltratada: El Maltrato Institucional.* Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.**

Eskola eta tratu txarrak uztartzen ditu. Ondoko gai hauek aztertzen ditu: tratu txar instituzionala eskolan; tratu txarrak eskolan; haurraren premiak eta eskolak premia horiei eman beharreko erantzunak; desabantailak dauzkaten haurrak; *bullying*; prebentzio programak eskolan.

***LAPETRA CODERQUE P. (1993): La educación formal ante el maltrato infantil: *III Congreso Estatal sobre Infancia Maltrata-***

**da: Asociación Madrileña para la prevención de los malos tratos en la infancia.**

Azken urteotan hezkuntzan izan diren aldakuntzak kontuan hartuz, tratu txarren aurrean eskolaren eginkizuna zein den zehazten saiatzen da autorea. Honako gai hauek ditu hizpide: eskolaren eginkizuna; Haurren babes eta hezkuntza eskubideak jasotzen dituen marko juridikoa Espainian; L.O.G.S.E. eta haurren ongizatea; eskola-adina daukaten haurren jokaera; eskolaren eginkizuna tratu txarrak agerian jartzeko orduan. Bukatzeko, azpimarragarria da tratu txarrak agerian jartzeko baliogarria den galdetegi bat ere badakarrela.

***LÓPEZ SÁNCHEZ F. (1995): Necesidades de la infancia y protección infantil. *Fundamentación teórica, clasificacación y criterios educativos.* Madril: Ministerio de Asuntos Sociales.**

Tratu txarren gaineko hausnarketa da, neska-mutikoen premiak abiapuntutzat hartuta. Hainbat ataletan, haurren premiei eskolak eman beharreko erantzunez dihardu autoreak.

***MUÑOZ CANO R.; REDONDO HERMOSA E. (1995): La prevención y detección del maltrato adolescente en los centros educativos. *IV Congreso Estatal Infancia Maltratada.* Asociación Andaluza.**

Lan batean oinarritzen da. Lan horretan, tratu txarrez nerabeek daukaten pertzepzioa azaltzen da. Lanaren ondorio baten arabera, nerabeek tratu ona zor zaiela uste dute, bai familia eta bai irakasleengandik ere. Lanak irakasle eta orientatzaileen ikuspegia ere jasotzen du. Eskolan tratu txarrak prebenitzeko moduak azaltzen dira.

***PALACIOS GONZÁLEZ J. (1995): Ojos que no ven: luces y sombras en la percepción que los profesores tienen del maltrato infantil. *IV Congreso Estatal Infancia Maltratada.* Asociación Andaluza.**

Andaluzian tratu txarren gainean egindako lan baten emaitz eta ondorioak jasotzen ditu; zehatz esateko, eskolari eta irakasleen pertzepzioari dagozkien ondorioak azaltzen dira.

***REDONDO HERMOSA E. (1994): Un decálogo para evitar el maltrato institucional en la infancia. Redondo E. *I Jornadas sobre Infancia Maltratada: El Maltrato Institucional*: Gasteiz: Asociación Vasca para la Ayuda a la Infancia Maltratada (AVAIM). Arabako Foru Aldundia.**

1994an, AVAIM Elkartearen eskutik, Tratu Txar Instituzionalari buruzko Topaketak burutu ziren Gasteizen. Partehartzaileen hausnarketa interesgarrienak biltzeko asmoz, Tratu Txar Instituzionala Prebenitzeko Dekalogoa egin zen. Dekalogoak hainbat erakunde aztertzen ditu; horien artean, eskola.

***VARONA SÁNCHEZ B. (1995): Un programa de apoyo escolar a la escuela para la prevención, detección y atención de niños en situación de riesgo social. *IV Congreso Estatal Infancia Maltratada.* Asociación Andaluza para la defensa de la Infancia y la prevención del maltrato.**

Eskolan Haurrak Babesteko Laguntza Programa deskribatzen du. Programa hau Madrileko Autonomi Elkartean indarrean dago.

***ZÖLLER ELISABETH (1996): *¿Y si me defiendo?* Bartzelona: Edebé.**

Liburuaren ardatz nagusia haurren arteko tratu txarrak dira. Irakasleei eta haurrei zuzenduta dago. Ikaskideengandik tratu txarrak jasotzen dituen haur baten istorioa da. Gainera, azaltzen du ikastetxean zelan egiten dioten aurre arazoari.

Bukatzeko, esan beharra dago badagoela aldizkari bat haurrek jasaten dituzten tratu txarren gainekoa: ***Bienestar y Protección Infantil.*** Aldizkari honek haurrekin dabiltzan profesionalen esperientziak eta ikerketa-lanak biltzen ditu. Aldizkaria *Haurrei ematen zaien Tratu Txarra Prebenitzeko Federazioak* argitaratzen du.



MI BEBE Y YO. 65. zkia. 97ko urria

# Beste material batzu

*Estibaliz Muzás Rubio*
*Babes Guneen Koordinatzailea*
*Gasteizko Udala*



MI BEBE Y YO. 57. zkia.

**"Aispas" pedagogia liburuska. Video Forum. Euskaraz eta Gazteleraz. Arabako Aldundiaren Giza Ongizate Departamentua. 1996ko iraila.**

Sexu-abusuei buruzkoa da eta AISPAS Elkarteak (Sexu-abusuak Prebenitzeko Lanbide Arteko Elkarte frantziarra) burutu zuen 1994an. 1996an itzuli egin zen Arabako Foru Aldundiaren eskutik.

Aipatutako liburuska honen eta Video Forum-aren helburuak honako hauek dira:

- Neska-mutikoei euren burua baloratu eta estimatzen erakustea; baita euren eskubide eta betebeharrak zeintzuk diren jakin eragitea ere.
- Arriskutsuak izan litezkeen egoerak neurtu eta nola autobabestu erakustea adin-txikikoei.
- Erru-sentimentua alboratu eta indarkeria jasaten ari diren haurrei berba egiteko adorea ematea.
- Indarkeria etenarazi eta haurrei laguntzeko bitartekariak topatzea, haurraren ingurukoak nahiz profesionalak.

**LOBO, E. (1995): Eskolarako Gida (Guía para la Escuela). "La protección de los niños y niñas en situación de riesgo social". Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritza. Madrileko Autonomi Elkartea.**

Gida honen bitartez, tratu txarrak eta haur babesgabetuen aurrean Hezkuntzako Profesionalen sentiberatasuna piztu nahi da. Horretaz gain, Hezkuntzako Profesionalari lagundu eta honen lana erraztea dira gidaren helburuak. Ikasleek izaten dituzten arazoei buruzko informazioa eta arazo horiek nola detektatu azaltzen du Gidak.



**VARONA, B. (1995): "Los programas de prevención del maltrato infantil en el ámbito escolar". Madrileko Autonomi Elkartea.**

Programa honi "X Programa" deritzo. 88-89 ikasturtean, Madrileko Autonomi Elkarteko Haur Eskola eta O.H.O.-ko ikastetxe guztietan (Publiko eta Hitzartuetan) jarri zen indarrean, Madrileko Autonomia Elkartea eta Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren lankidetzaz.

Helburuak:

- Arrisku soziala daukaten haurren gainean informazioa eman eta Hezkuntza munduan dabiltzan profesionalen sentiberatasuna piztea.
- Arriskuan dauden haurrak detektatzea.
- Arrisku handia daukaten haurrekin lan egiten duen irakaslegoari laguntzea.



A TI MADRE. Sociedad Nestlé, A.E.P.A.

**BARUDY, J. (1993): "El enfoque sistemático del maltrato infantil: Una intervención alternativa a la violencia familiar". Tratu txarrak jasaten dituzten haurren gaineko II. estatu-Biltzarra. Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritza.**

Bertan, zera aztertzen da:

- Tratu txarrak gertatzen direneko familiak nolakoak izaten diren aztertzen da; baita tratu txarrok eragiten dituzten faktoreak zeintzuk diren ere: faktore sozio-ekonomikoak, faktore sozio-kulturalak eta faktore psiko-sozialak.
- Familia barruan gertatutako sexu-abusuen kasu klinikoak.
- Eredu terapeutiko alternatiboa; tratu txarrak gertatzen diren familietan interakzio moldeak aldarazteko.

# Eskolaren eginkizuna tratu txarren aurrean

*Estibaliz Muzás Rubio*
*Pedagogoa*
*Babes Guneen Koordinatzailea*
*Gasteizko Udaletxea*



CRECER FELIZ. 104. zkia. 97ko maiatza

Erresuma Batuko Umeenganako Krudelkeria Prebenitzeko Erakunde Nazionalaren arabera, astero-astero 3 edo 4 ume hiltzen da gurasoengandik jasotako tratu txarrak direla eta (NSPC, 1985). Hiltzen den ume bakoitzeko, gainera, beste bat bizitza osorako ezindurik geratzen da; beraz, hildakoez gain, astero-astero beste 3 edo 4 ume itsu, gor edo buruko gaitz sendaezinen batek jota geratzen da Erresuma Batuan.

EEBBetatik datorkigun informazioaren arabera, bertako umeen %1ak tratu txarrak jasaten ditu urtero-urtero. 1992an, 2.936.000 tratu txar edota arduragabekeria kasu salatu zituzten.

Espainian, 1996an Delgadok egindako txosten batean irakur daitekeenez, gutxi gora-behera 40.000 salaketa egin ziren umeei emandako tratu txarrekin zerikusia zutenak. Tratu txarren ondorioz, urtean 90 haur hiltzen da Espainian.

Kopuruak zehaztea zaila bada ere, kasuen %10a inguru besterik ez da salatzen.

Familia barruko sexu-abusu eta tratu txarren inguruan, hiru gizatalde hauek bereiz ditzakegu:

- Alde batetik, indarkeria eta tratu txarrak eragiten dituztenak. Frogatuta dago hauek ere txikitan sexu-abusua eta tratu txarrak jasan zituztela euren gurasoengandik.

- Bestetik, abusua eta tratu txarren egungo biktimak: haurrak.

- Azkenik, bitartekoak. Hauek lekukoak edo konplizeak izan daitezke.

Hirugarren talde honetan gaude Hezkuntzako Profesionalok, begiraleok, jokaera hauen aurrean ezer gutxi egin dezakegula pentsatzen dugunok, abusuegoerei konponbidea topatzea ezinezkoa dela uste dugunok.

## TRATU TXARRA: KONTZEPTUA

Tipologiaren arabera, bost tratu txar mota bereiztu ohi dira. Gauza bi hartzen dira kontuan: ea pertsona helduak egitez edo omisioz jardun duen eta ea helduaren ekintzak adintxikikoaren alderdi fisikoari edo emozionalari kalte egiten dion.

| TRATU TXARRA | AKTIBOA (egitez) | PASIBOA (omisioz) |
|---|---|---|
| FISIKOA (ikusten dena) | Tratu txar fisikoa (indarkeria, kolpeak) | Arduragabekeria fisikoa (utzikeria) |
| EMOZIONALA (ikusten ez dena) | Sexu-abusua<br>Tratu txar emozionala (arazo emozionalak) | Arduragabekeria emozionala |

**Tratu txar fisikoa**: guraso edo zaintzaileek, gurata egindako edozein ekintza dela tarteko, haurrari kalte fisikoa edo gaixotasunen bat eragin diotenean; baita kalte horiek eragiteko arrisku larria egon denean ere.

**Arduragabekeria fisikoa:** tratu txar mota hau gertatzen da etxekoek haurraren premia fisikoei erantzuten ez dietenean; hau da, haurraren elikadura, jantziak, garbitasuna, osasuna eta babesari jaregiten dietenean; baita hezkuntza arloan ere, haurrari derrigorrezko irakaskuntza jasotzea ziurtatzen ez diotenean.

**Tratu txar emozionala:** etengabeko hitzezko erasoari esaten zaio: irainak, burlak, mesprezua, kritika gaiztoa, mehatxuak... Kasu hauetan, gainera, senitarteko pertsona helduak/-ek haurraren interakzio nahiei trabak jarri besterik ez du(te) egiten.

**Bazterketa emozionala:** haurrak igortzen dituen seinale eta adierazpen emozionalei (negarra, irribarrea...) pertsona helduak erantzuten ez dienean; haurraren gerturatze, harreman eta interakzio gurariei helduak kasurik ere egiten ez dienean.

**Sexu-abusua:** boterea nahiz autoritatea erabiliz, senitarteko, tutore edo beste edozein pertsona helduk 18 urtetik beherako haur batekin sexu harremana izan duenean.

1985ean Kataluniako Pediatria Elkarteak egindako azterketa batean, osagai berri bat agertzen da tratu txarren definizioan: Erakundeak. "Sexu indarkeria eta indarkeria fisikoa tratu txarren adierazle dira; baita haurraren garapenaz arduratu beharko luketen pertsona eta erakundeen utzikeria ere".

Tratu txarren gaineko ikerketetan eta bibliografia klinikoan, sarritan aipatzen da ondoko faktore hau tratu txarren eta sexu-abusuen sorburu gisa: haurtzaroan jasandako tratu txarrak eta abusuak.

Tratu txarren belaunez belauneko transmisioaren hipotesia gero eta indar handiagoa ari da hartzen (Milner, Robertson eta Rogers, 1990).

## ESKOLAREN EGINKIZUNA

Zaila da haurrek jasaten dituzten tratu txar kasuak zenbatzen. Batetik, kontzeptua bera ez dago oraindik ondo zehaztuta; bestetik, daukagun informazioa ez da oso fidagarria. Argi dagoena zera da: tratu txar kasuen %10a besterik ez da agerian jartzen.



GUIA DEL NIÑO. 98ko zkia.

Tratu txarrak agerian jartzeko lanean, eskolak berebiziko garrantzia dauka. Familia alde batera utzita, haurrak Eskolan ematen du ordu gehien egunean zehar. Beraz, tratu txarrak detektatu eta prebenitzeko orduan, "behategi aparta" dugu Eskola.

Eskolak, haurraren eskubideak zaintzeaz gain, pertsonaren formazio integrala du helburu. Hau guztia abiapuntu hartuta, Eskolak ondoko ardurok hartu behar ditu bere gain:

• Haurra eskolaratzen den unetik, tratu txarren arazoa prebenitzen hastea.

• Tratu txarren aurrean, irakasleen sentiberatasuna piztea.

• Tratu txar susmorik egonez gero, konponbidea bilatzeko eskura dauzkagun tresnak zeintzuk diren jakitea.

• Haurra eskolaratzen den unetik bertatik, hezkuntza afektibo eta sexuala garatzeko programak landuz joatea.

• Profesionalei kontzientzia hartu eragin eta berauek trebatzea, edozein arazori erantzun egoki eta azkarra emateko gai izan daitezen.

## IRAKASLEEI ZUZENDUTAKO ORIENTABIDEAK

Umetan tratu txarrak eta abusua jasan zuten pertsonen zorigaitza hauxe da: txikitako oinaze hura inori jakinarazi ez izana, inork ez entzun izana. Subkontzientean "gordetako" oinaze eta minok euren seme-alabengan proiektatzen dituzte gero. Horrela, tratu txar, ardugabekeria eta indarkeria transmitutu egiten dira belaunez belaun.

Irakasleak bi eginkizun nagusi du: irakastea eta hezitzea. Haurraren **heziketa integrala** irakaslearen esku dago neurri handi batean. Hortaz, erne egon beharko du tratu txar egoerak detektatzeko.

Funtsezkoa da irakaslea ondo trebatuta egotea edozein tratu txar kasuri aurre egiteko. Tratu txar zantzu txikiena detektatuz gero, irakaslearen erantzunak azkarra eta egokia behar du izan, bai biktimaren aurrean eta bai erasotzailearen aurrean ere.

Irakaskuntzako profesionalak, lehen "lekuko" deitu dugun horrek, hezitzaile ezezik, behatzaile ere beharko du izan, beti erne eta ekintzarako gertu. Profesionalon betebeharra da tratu txarrak salatzea. Horixe dio legeak ere. Horra hor "Adin-txikikoa juridikoki babesteko Lege Organikoa", 1995eko abenduan onartu eta 1996ko otsailean indarrean jarri zena.





Hona hemen Lege honen 13. artikuluak dioena:

"Pertsona guztiek -lanbidez haurrekin dabiltzanak batez ere-, adin-txikikorik arriskuan edota babes barik somatuz gero, adin-txikikoari berehala laguntzeaz gain, egoera hori dagokien agintariei jakinarazi beharko diete".

"Halaber, ondoko kasuok ere dagokien agintariei jakinarazi behar zaizkie: eskolaratu bako adin-txikikoen kasuak eta inolako aitzakia barik eskolara joaten ez diren haurren kasuak. Horrela, behin kasuon berri emanda, haur hauek eskolaratzeko neurriak hartuko dira".

Hau guztia kontuan hartuta, bere lanbideaz konpromezua hartua duen irakasleak ondoko betebeharrok izango ditu:

•Haurrari konfidantza eta babesa eskaintzea, bere bizipen eta kezkak azal ditzan. Kontu egin haurraren eredu nagusienetako bat irakaslea dela.

•Beti erne egotea, tratu txar fisiko nahiz emozionalaren adierazleak detektatzeko: ubeldurak, kolpeak, erredurak, elikadura eskasa, garbitasun eza, arduragabekeria fisikoa, haurrarekiko arreta eza gurasoen aldetik, haurra eskolara ez agertzea, beldurrak, hutsune afektiboak, tristura zantzuak, afektu behar handiegia, hizkuntza arazoak, jokaera agresiboa...

•Oso kontuan hartzea haurrak tratu txarren gainean esaten duen edozer zeren eta, azken batean, haurra bera baita tratu txarren biktima, eta ez sorburua.

•Tratu txarrei berehalako erantzuna ematea. Dagokien Erakundeak jakinaren gainean jarriz, hauek laguntza espezializatua eskainiko digute (Udaletxe eta Aldundietako Zerbitzu Sozialak, Udaltzaingoa, Ertzaintza, Fiskaltza...).

## AZKEN ONDORIOA

Baliteke zenbait irakaslek pentsatzea nahikoa egiten duela ikasturtean zehar eskolak behar bezala prestatu eta ematearekin; nahikoa egiten duela haurrei ikasketetan laguntzearekin... Berriz, planteatu dugun gai honi buruzko hausnarketa egiten badute, konturatuko dira Hezkuntzako Profesionalak "tratu txarren lekuko edota konplizeen taldea"ren barruan daudela eta haurraren segurtasunean erantzunkizun esanguratsua daukatela.

Honenbestez, gure ustetan, Hezkuntzako Profesionalon zeregina da beti ere hezkuntza integrala bermatzea. Asmoak asmo, ekintzara jo behar dugu, eta horretarako, erne egon behar dugu arrisku egoerak agerian jarri eta neurriak hartzeko, haurraren segurtasuna dagoeta jokoan.

# Tratu txarren prebentzioa eskolan

*Ramón Muñoz Cano: orientatzailea*
*Elena Redondo Hermosa: psikologoa*

Sarritan esaten da, eta azpimarratzen, haurrarendako garrantzi handiena duen esparrua eskola dela, familiaren ostean. Beraz, topikotzat har dezakegu baieztapen hau: haur eta nerabeen hazkuntzak eta garapenak lotura estua dute eskolako bizipenekin.

Aski idatzi da hezkuntza-erakundeek jokatzen duten paperaz eta dauzkaten eginkizunez; horrela ba, ez gara luzatuko paper eta eginkizun hauek zeintzuk diren errepikatzen. Oraingoan, eginkizun horietan bat hartuko dugu ardatz: haurraren segurtasuna; kontuan hartuz *segurtasuna* ez dela kasu honetan kontzeptu estatikoa, haurraren garapenarekin batera aldatuz doan kontzeptua baizik.

Eginkizun horri modu askotan hel diezaioke ikastetxeak, beti ere abiapuntu bi hauei jarraituz: batetik, profesionalen prestakuntza; bestetik, instituzioaren antolakuntza egokia. Ikastetxearen betebeharra konplexua bada ere, konponbide egokiak topatzea da helburua. Saia gaitezen hau guztia azaltzen.

Gure ikuspegitik, ikasleen osotasuna segurtatzeko, hiru tratu txar multzo hauetan jarri behar dugu arreta:

1. Helduek haurrei ematen dizkieten tratu txarrak prebenitu eta detektatu.
2. Haurren arteko tratu txarrak prebenitu eta detektatu.
3. Tratu txar instituzionala prebenitu.



MI BEBE Y YO. 65. zkia. 97ko urria

Sailkapen honetan ez dugu lehentasunik finkatu nahi izan. Hori bai, jakinean gaude azken multzo biak batez ere guri dagozkigula, ikastetxean bertan gertatzen diren tratu txarrez ari gara eta. Ikus dezagun orain zertan dautzan tratu txarrok.

## 1.HELDUEK HAURREI EMATEN DIZKIETEN TRATU TXARRAK: PREBENITU ETA DETEKTATU

Tratu txarron definizioa hauxe da: *18 urtetik beherakoek egitez edo omisioz jasan dituzten tratu txar fisiko nahiz psikologikoak* (Burguess, 1981). Tipologia ohikoenak hauexek dira: **tratu txar fisikoa, bazterketa, arduragabekeria, tratu txar psikologikoa eta sexu-abusua.** Kasu gehientsuenetan, tratu txartzat jotzen ditugun harreman disfuntzionalok familia barruan gertatzen dira. Hori dela eta, ondorioak oso izaten dira latzak, zeren eta eragindako kaltearen larritasunak lotura zuzena baitu erasotzailea eta biktimaren arteko hurbiltasun afektibo eta emozionalarekin. Hain zuzen ere, familiaren esparrua pribatua denez, zailtasun handiak izaten dira arazoaz behar bezala jabetzeko. Hori horrela izanik, ezinbestekoak zaizkigu kontrol sozialerako tresnak, arazoak detektatu eta ahal dugun neurrian eskuhartzeko. Horixe da hain zuzen eskolaren, ikastetxearen, hezkuntza erakundearen betebehar ordezkaezina: arazoak detektatu eta abusu egoerak jakinaraztea. Argi dago kontrol sozialaren barruan osasun zerbitzuek (pediatrek eta erizainek) ere badutela zeresanik, baina hori horrela da umeak ume diren bitartean bakarrik, zeren, haurren adinak gora egiten duen heinean, detektatutako arazoek behera egiten baitute (Palacios, 1995).

Honenbestez, oso zabalduta dago ondoko iritzi hau: eskola *behategi aparta* da haur eta nerabeei ematen zaizkien tratu txarrak agerian jartzeko. Jakina, hau egia izango da baldin eta onartzen badugu haurraren osotasuna segurtatzea eskolaren eginkizuna dela. Eta horrela da, izan ere; horra hor, *Euskal Autonomi Elkarteko Ikastetxe Ez-Unibertsitarioetako Ikasleen Eskubideak eta Betebeharrak jasotzen dituen 160/1994 Dekretua* (9. artikulua). Jakina, irakasleek argi izan behar dute haur eta nerabeek jasaten dituzten tratu txarrak ez direla bakarrik arazo bat gehiago beste askoren artean; argi izan behar dute euren ikasleen garapen pertsonal eta soziala dagoela jokuan. Ikasleak eurak ere konturatzen dira irakaslearen ardura, ikasketen arlora ezezik, ikasleen hazkuntza eta autonomiari dagozkion alderdi guztietara ere hedatzen dela (Muñoz, R. eta Redondo E., 1995). Abusuak dakartzan ondorioen aurrean irakasleak sentsibilizatu eta trebatu beharra dago. Horretarako, **programa** espezifikoak daude, Haurren Babeserako Zerbitzuen eta esparru honetan lanean diharduten OEG-en (Organizazio Ez Gubernamentalak) lankidetzaz burututakoak.

Badago, gainera, hain zirkunstantziala ez den beste bide bat tratu txarrak detektatzeko: hezkuntza jarduera inguratzen duen **giro instituzionala**, hain zuzen. Gaur egun oraindik ez zaio behar besteko arreta jartzen irakaslearen jokaerari ikaslearen aurrean dagoenean, ikasketen aurrean, taldelanaren aurrean, hezitzaile paperaren aurrean. Harreman eta antolakuntza mailan nolako giroa dagoen, horrek adieraziko digu ikastetxe batean gauza benetan eraginkorrak egin daitezkeen ala ez. Giroari dagokionean, asko dira kontuan hartu beharreko alderdiak. Guk bi aipatuko ditugu, aztertzen ari garen gai honetan oinarri-oinarrizkoak direlakoan. Bata: **nola konpondu arazo edo gatazkak eta nolako erabakiak hartu** eskolan. Bestea: **Irakasle-ikasle harremanak nolakoa behar duen zehaztu.** Ezin alderdi bakoitzean larregi sakondu; bai, ordea, ohartxo batzuk azaldu.

Egunero-egunero arazo berri eta *zaharrak* sortzen dira eskolan. Hala ere,


GUIA DEL NIÑO. 98ko zkia.

gure erronka ez da arazo horiek ager ez daitezen saiatzea, edo arazook desagertaraztea (helburu hau ez litzateke batere errealista izango kasu gehientsuenetan). Gure erronka da arazo baten aurrean zeri heldu edukitzea, **denon artean lanari ekin eta konponbideak topatzeko prozedura adostuak** eskura edukitzea. Ez da bakarrik irakasleen lana, ikasleek ere parte hartzea komeni da, horretarako adina baldin badute behintzat. Irakasle-ikasle harremanaren gainean gauza ugari esan da. Hemen azpimarratu gura duguna zera da: dependentziazko harremana, iritzi eta arau finkoen inposaketa, konfidantza falta eta harreman eza azken finean..., kontu hauek guztiek komunikazioa kolokan jarri besterik ez dutela egiten. Eta horrela, zalantzarik ez, haurrak sekula ez dio irakasleari jakin eragingo familiakoen partetik -beti ere laguntza eskaini beharko lioketenen partetik- erasoak eta tratu txarrak jasaten ari denik.

## 2.HAURREN ARTEKO TRATU TXARREN PREBENTZIOA

Arazo hau berria dela uste duena oker dabil. Lerro hauek irakurtzen dituen edozein irakasle berehala konturatuko da arazo hau ez dela inondik ere berria. Maiztasun eta indar handiagoz edo txikiagoz, haurren arteko tratu txarrak betidanik gertatu izan dira ikastetxe askotan. Haurrak babestearen garrantziaz gizarteak hartu duen kontzientziari esker jabetu gara arazo hau bereiztu eta aztertu beharra dagoela. Noiz gertatzen da **haurren arteko tratu txarra edo *bullying*** deritzona? Haur edo nerabe batek (edo gehiagok) beste haur bati behin eta berriro eraso egin edota beldurtu egiten du(t)enean gertatzen da; haur erasotua bere burua defendatzeko gai ez denean. Edozein eztabaida edo *borroka* ez da berez tratu txarra. Tratu txarra izango da baldin eta erasotzaile-erasotuaren artean **indar desoreka** garbia badago; **erasotzaile(ar)en aurrean biktima bebesgabe badago**; erasoak etengabe errepikatzen badira.

Honen guztiaren aurrean, beharrezkoa da ikastetxeen jokaera aldatzea. Ikastetxeak ez du bakarrik **disrupzio** arazoez arduratu behar, hau da: jokaera arazoez, eskola porrotaz, ikasteko zailtasunez... Ikastetxearen ardura da, halaber, **ikasleen arteko indarkeria** agerian jartzea, tratu txar fisiko, ahozko edota psikologikoa eragin ditzaketen egoerak saihesteko. Bestela, biktimek ezezik, ikastetxeak berak ere ondorio larriak jasango ditu.

Haurren arteko tratu txarra prebenitu eta ikastetxean behar den moduko giroa egon dadin, goian aipatutako bi alderdiak oso kontuan hartu beharko ditugu. Osagarri gisa, gainera, ondoko neurri hau hartzea ere lagungarri izango zaigu oso: interakziorako trebakuntza programak, arazoei aurre egiteko eta berauek konpontzeko programak, eta, azken finean, gaitasun soziala garatzeko programak curriculum-ean txertatzea. Ikusten denez, horrelako gauzak eginez bizikidetza eta hazkuntza pertsonala garatzen ditugu; gainera, hezkuntza-jarduera oinarri koherente baten gainean eraikitzen dugu eta ekintzak elkarren osagarri eta lagun-



garri bihurtzen. Are gehiago: zeharka bada ere, eguneroko bizimoduaren beste alderdi batzuetan ere eragina izan dezakegu. Horretaz guztiaz gainera, ikastetxearen antolakuntza nolakoa den aztertu eta aldaketak egin daitezke, ikastetxea leku segurua izan dadin. Jolasorduek, esate baterako, arreta berezia merezi dute, jolasorduetan gertatzen baitira haurren arteko tratu txar kasuetatik lautik hiru.

Bestelako jardunbideak ere badaude, sofistikatuagoak beharbada, baina inola ere ez baztergarriak; aitzitik, baliabide apartak izan daitezke. Adibidez, hor dago **bitartekari** lana egin dezakeen ikaslea; hor dago baita **adiskide eta aholku-emale** izan daitekeena ere... Ikaskideen interakzio arazoak konpontzeko trebatuta dauden ikasleak dira, haien lagunak (Fernández, I. 1996). Nolanahi ere, arazoen konponketa bera bezain garrantzitsua izango da konponketara heltzeko jarraituko dugun bidea. Berriro esango dugu: artikulu honetan aztertzen ari garen arazoak konpontzeko estrategiarik onena, esklusiboa ez den arren, berba egitea, negoziatzea eta akordioak lortzea da.

## 3.TRATU TXAR INSTITUZIONALAREN PREBENTZIOA

Irakasleen ikuspegitik begiratuta, arazo honek berria ematen du. Hala ere, egunean-egunean gaurkotasun handiagoa hartzen ari den tratu txar mota baten aurrean gaude. Familiak edo ikaskideek ematen dituzten tratu txarrak alde batera utzi eta aztertuko duguna zera da: ea eskolak -instituziotzat hartuta- haurren eskubideak zaintzen dituen eta ea haurren premiei erantzuten dien. Balorazio hau egiteko gura beste alderdi azter daiteke: ikastetxeen azpiegitura fisikoaren egoera, irakasleen lan-baldintzak, organizazioa, irakasteko eta ikasteko metodoak... Nolanahi ere, aurrera jo baino lehen, **Tratu txar instituzionala** zer den zehaztea komeni da, ez dezagun okerbiderik har.

Definizioa: tratu txar instituzionala *botere publikotik nahiz bertako funtzionari edo profesionalen eskutik datorren tratu txarrari deritzo. Edozein lege, prozedura, ekintza edo omisio dela-eta, haurrari ondoko kalteak eragiten zaizkionean gertatzen da: abusua, arduragabekeria, osasun arazoak, segurtasun eza, desoreka emozionala, heldutasun falta edota oinarrizko eskubideen zapalkuntza* (Martínez Roig eta Sánchez Marín, 1989). Argi dago haurraren osotasuna eta eskubideak erreferentziatzat hartzen direla beti ere.

Oro har, baldin eta ikastetxe batean aurreko bi puntuetan azaldu ditugun tratu txar motak prebenitzeko planak martxan jartzen badituzte, tratu txar instituzionala ere saihesteko zutabe sendoak eraiki dituztela esan genezake. Hala nahi balu, **Tratu txar Instituzionala Prebenitzeko Dekalogo**ra ere jo lezake irakurleak (Redondo E. koord., 1994). Hala ere, egungo joerak kontuan hartu eta lehen aipatutako proposamenen ildotik, argi dago gure erronka **kalita-**





Detalle. *Niños mirando las hormigas.*
Dibujante: Javier Ortega. S. XIX

*La protección de los niños y niñas en situación de riesgo social. Guia para la escuela. 3ª Edición.*
Consejería de Educación y Cultura. Comunidad de Madrid.

**tea hobetzeko programak** indarrean jartzean datzala. Pentsa liteke hau egitea egungo moden aurrean makurtzea dela, baina uste hori ez da zuzena. Kalitatea modu askotan defini daiteke; definizio horien artean bat, *gauzak hobeto egiteko modua* da. Dena den, zerbitzu baten kalitateaz ari garenez (ikastetxe batek eskaintzen duena, kasu honetan), kalitatearen beste definizio hau ere aipatuko dugu: *bezeroaren premiei erantzutea.* Ikasleen premiei modu egokian erantzunez gero, ez da tratu txar instituzionalik gertatuko; gauza biak ez datoz sekula bat.

Zorionez, kalitatea zaindu eta hobekuntza planak garatzeko ardura zabalduz doa hezkuntza munduan; haatik, zabalkuntzaren geldoak larritasuna sortarazten du. Benetako kalitatearen *kulturak* luzetxo joko du oraindik. Hala ere, ikastetxe batzuetan hausnarketa egin da honen guztiaren gainean eta atera duten ondorioa hauxe da: zerbitzuaren kalitatea hobetuko bada, prozedura teknikoen kalitatea hobetu eta ikasleen premiei erantzun beharko zaie. Horrela ba, ikastetxe hauek oinarriak ipini dituzte ikasleen osotasuna segurtatzeko, hau da, artikulu honen hasieran aipatu dugun eginkizunari aurre egiteko.

Duela urte gutxi, National Center on Child Abuse and Neglect-ek lan bitxi bat egiteko eskatu zion Helfer-i (1991). Helfer-ek 2007. urtean kokatu behar zuen bere burua. Behin 2007. urtean, *azken 20 urteetako* haurrak babesteko sistemak aztertu behar zituen. Pediatra honek aurrez zeuden prebentzio programa guztiak baztertu zituen, bi izan ezik: prebentzio perinatala eta eskolan landutako programak. Zalantza barik, apustu zuhurra egin zuen. Prebentzio perinatalak oso eraginkorra dirudi abusuari aurre egiteko (Mac Millan, 1994). Eskolako programak, berriz, *etorkizuna* dira. Hala bedi.

## BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK


BURGUESS, R., RICHARDSON, R. (1981): Coercitive interpersonal contingencies as a determinate of child abuse: implications for treatment and prevention. R. Dangel & Polster-en argitalpenean, *Behavioral parent training: issues in research and practice.* New York: Guildford Publications, Inc.

FERNÁNDEZ, I. (1996): Estudio y modelo de intervención de la violencia interpersonal en centros educativos. *Bienestar y Protección Infantil*, 2 zenb., 96-112 orr.

HELFER, R. E. (1991): Child abuse and neglect: assesment, treatment and prevention, October 2007. *Child Abuse and Neglect,* 15. liburukia, S1 zenb. 5-16. ç orr.

MACMILLAN (1994): Primari prevention of child abuse and neglect: a critical review. Part 1. *Journal of Child Psychology and Psychiatry.* 35. liburukia, 5 zenb., 836-856.

MARTÍNEZ ROIG, A. eta SÁNCHEZ MARÍN, J.J. (1989): Malos tratos institucionales. I Congreso estatal sobre Infancia Maltratada. 1989. ACIM.

MUÑOZ, R. REDONDO, E. (1995): La prevención y detección del maltrato adolescente en los centros educativos. *IV Congreso sobre Infancia Maltratada.* 229-233 orr. Sevilla. ADIMA.

PALACIOS, J. (1995): Ojos que no ven: luces y sombras en la percepción que los profesores tienen del maltrato infantil. *IV Congreso sobre Infancia Maltratada.* 235-237 orr. Sevilla. ADIMA.

REDONDO E. koord. (1994): Decálogo para la Prevención del Maltrato Institucional. *I jornada sobre Infancia Maltratada: El Maltrato Institucional.* Gasteiz. Arabako Aldundiaren Ongizate Saila.

# Denon arazoa

Consuelo Crespo Bofill
Euskal Herriko UNICEF
Batzordeko Lehendakaria



MI BEBE Y YO. 60. zkia. 97ko maiatza

H*aurrei tratu txarra emateak* ikaragarrizko eragina du maila sozial, juridiko eta etikoan; baita medikuntza mailan ere. Arazoa ondo-ondo aztertu beharko dugu behar den moduko konponbidea emango badiogu, zeren, segurutik, uste duguna baino larriagoa baita.

Tratu txarrak eragiten dituzten egoerei aurre egiteko, gaitzespen hutsa ez da bidea. Arazoa saihestea besterik ez da hori; jokaera horien kontrako jardunari modu eraginkorrean ekin behar diogu. Hausnarketa ezezik, ekintza ere landu beharra dago. Ezin gara besterik gabe itxoiten geratu; haurrei kalte egiten dieten jokera guztien kontrako jardunean, funtsezkoa da elkartasun oinarri sendo eta argia izatea, horrela, gogo handiz eta eskuzabalki lotuko gatzaizkio-eta lanari.

On litzateke lehenengo eta behin *haur txarto tratatua*ren kontzeptua zehaztea, tratu txarraren erroa non dagoen aztertzen hasi aurretik.

*Haur txarto tratatua*ren adin-esparrua jaiotzetik hasi eta pubertaroaren atariraino luzatzen da. Tarte horretan, kalte fisiko nahiz mentalak, heriotza edo bestelako ondorio latzak nozitu ditu haurrak. Kalte hauen eragilea, berriz, haurrarekin edozelako harremana duen gizakume edo emakumea da. Harreman horren ondorioz, adin-txikikoaren premiei erantzun barik geratzeko arriskua dago.

Jokaera hau ikuspegi desberdinetatik azter daiteke: batetik, ikusi beharko litzateke tratu txarra fisikoa ala psikikoa den; bestetik, egitez ala omisioz burutu den; eta, azkenik, familia barruan bertan ala familiaz kanpo gertatzen diren.

Oinarrizko tipologiak honako hauexek lirateke:

***Tratu txar fisikoa** : gurata egindako edozein ekintzaren ondorioz, guraso edo zaintzaileek haurrari kalte fisikoa edo gaixotasunen bat eragin diotenean.



EPSTEIN, J. RADIGUET, Ch. *L'Explorateur nu.* Editions Universitaires, 1982

***Sexu-abusua** : botere edo autoritatea erabiliz, senitarteko, tutore edo edozein pertsona helduk 18 urtetik beherako haur batekin sexu-harremana izan duenean.

***Arduragabekeria fisikoa** : aldi batez nahiz denbora luzez, etxekoek haurrari beharrizan fisikoak (elikadura, jantziak, garbitasuna, osasuna, heziketa...) segurtatu ez dizkiotenean, arduragabekeria egon dela esaten da.

***Tratu txar emozionala** : etengabeko hitzezko erasoa da: irainak, burlak, mesprezua, bazterketa... Senitarteko pertsona heldu batek haurraren interakzio nahiak etengabe oztopatzen dituenean gertatzen da, haurrari ihes eginez edo berau konfinatuz.

***Bazterketa emozionala** : haurrak igortzen dituen seinaleei (negarra, irribarrea...), adierazpen emozionalei, gertutasun, harreman eta interakzio nahiei pertsona helduak kasurik egiten ez dienean gertatzen da.

Gainera, gure gizartean gertatzen diren beste tratu txar mota batzuk ere komentatuko ditugu:

***Tratu txar instituzionala:** Botere Publikotik datorren tratu txarrari deritzo. Edozein lege, prozedura, ekintza edo omisio dela eta, haurrari honako kalteak eragiten zaizkionean: abusua, arduragabekeria, osasun arazoak, segurtasun eza, egoera emozionalean desoreka, heldutasun falta... edota haurraren oinarrizko eskubideen zapalkuntza.

***Lan-esplotazioa:** guraso nahiz bestelako pertsona helduek haurrak lanean jartzen dituztenean gertatzen da; nahiz eta lanok pertsona helduek bete beharko lituzketen; edo ohi baino gogorragoak izanagatik ere, haurrari egin eragiten dizkiotenean; edo haurra-



MI BEBE Y YO. 60. zkia. 97ko maiatza

ren lanari gehiegizko etekin ekonomikoa atera nahi diotenean, e.a.

***Jaio aurreko tratu txarra:** Ama izango denak bere gorputza zaintzeari jaregiten dionean jazotzen da; edo barruan daraman fetuari kalte egiten dioten droga edo sustantziak hartzen dituenean.

Tratu txarrak jasaten dituen haurraren kasuaren etiologiak faktore indibidualak, familiartekoak eta sozialak biltzen ditu bere baitan.

Sarritan, gurasoak etsita daudenean, haurrek jasaten dituzte etsipen horren ondorio latzenak. Askotan, haurrari eraso egiten dieten gurasoek erasoak jasan zituzten txikitan: irainak, mesprezua, kritika gaiztoa, tratu txar fisikoa... Honen guztiaren ondorioz, ez autoestimarik ez konfidantza barik ailegatuko da gurasoa heldutasunera eta desoreka hori -agresibitatea, frustrazioa- besteengan proiektatuko du, batez ere seme-alabengan. Aita-amen haurtzaroko maitasun falta seme-alabenganako izugarrikeria eta sofrikario bihurtuko da, eta horrelaxe transmitituko belaunaldiz belaunaldi.

Haurrak behar den moduan hezi eta konprenitzeko gaitasun-eza ere berebiziko garrantzia daukan faktorea da tratu txarren etiologiaz jabetzeko.

Sarri askotan, tratu txarrak eragiten dituzten gizon eta emakumeek nahasmen psikikoak edukitzen dituzte, bereizgarri hauekin: eskema mental finkoak, larritasuna eta segurtasunik eza. Bestalde, eraso iraingarri hauek jolas bortitz edota manipulazio zakarrekin has daitezke.

Ez dago jokaera kaltegarriok zurituko dituen aitzakiarik; hala ere, goian aipatutako arrazoiek arindu egiten dute haurrei tratu txarrak ematen dien pertsona helduaren erantzukizuna. Aitzitik, tratu txarren kontu honetan, erantzukizuna helduarena beste inorena ez da ondoko kasu hauetan: aita-amek umerik gura ez arren, ekarri egin dituztenean; eskontzaz kanpoko umea denean; umea adoptatua izan denean; edo umea aurreko harremanen baten fruitu izan denean. Kasu hauetan tratu txarrak gertatuz gero, larri-larria da gurasoen erantzukizuna, jokaeron erantzuleak erasotzaileak eurak bakarrik direlako.

## *Hesi sozialik ez*

Jende askok eta askok uste du tratu txarren arazoa heziketa eskaseko eta maila sozioekonomiko apaleko taldeetara mugatzen dela soilik. Hala eta guztiz ere, errealitateak erakusten digu adin-txikikoek, talde soziekonomiko batekoak zein bestekoak izan, abusua jasaten dutela.

Egia da: tratu txarrak gertatzen diren hainbat etxetan bizimodu aldrebesa egiten da eta familia nahiko deseginda egoten da. Beharbada ezagutzera ematen diren kasu gehienak horrelako giroetan sortzen dira. Baina ezin gara honelako kasuekin bakarrik itsutu. Badaude familia batzuk ondo errotuta daudenak, oinarri ekonomiko sendoa daukatenak, umeak hazteko baldintza ezin hobeak betetzen dituztenak... eta guztiarekin ere, umeei tratu txarra ematen diete. Agian, gertatzen dena da erdi/goi mailako familietako tratu txar kasuek ez daukatela gizartean oihartzunik, eta, honen ondorioz, ez zaiela behar den moduan aurre egiten.

Hona hemen estatu espainiarrean 91/92 urteetan Komunitateka burutu zen azterketa:

Aztertutako kasuak: 23.483
Espedienteak: 32.103
Abusuak: 8.945, hauetatik

%79ak arduragabekeria jasan zuen.
%42ak abusu emozionala.
%30ak tratu txar fisikoa.

Abusatuen %9,2a 0tik urtebetera bitarteko umeak ziren. %52,3a haurrak ziren. "El Mundo" egunkariaren arabera, 1990. urtean 4.000 haur hil zen tratu txarren ondorioz eta 10.000 izan ziren kaltetuak. "El País" egunkariak jaso zituen kasuetatik %65a bortxaketa fisikoak ziren, %12a tratu txarrak, %12a sexu abusuak eta %8a baztertuak. "Las Provincias" egunkarian 1988an irakur zitekeenez, gurasoen %6ak biolentzia fisiko edo psikologiko krudel eta mingarria erabiltzen zuen.

Edozein tratu txar motak eragin zuzena izan dezake haurraren garapenean: eboluzio fisikoan, psikologikoan, emozionalean nahiz sozialean. Geroari begira, gizakion geroari begira, prebentzioak berebiziko garrantzia dauka.

On litzateke arazo honi sentiberatasunez aurre egitea denok, beti ere komunitateak haurraren alde egin dezan, erasotzaileen kaltetan eta agintarien lagungarri.

## *Tratu txarrei aurre eginez*

Zalantza barik, errehabilitaziorako oinarri-oinarrizkoak diren bideak daude: medikuntzari dagozkionak (erasotzaileari eta haurrari arreta psikiatrikoa eskaintzeko), haurra tratu txarren gunetik aldentzea eta tratu txarrak salatzea bai babes sozialerako zerbitzuetan, bai poliziaren aurrean. Gainera, gizarte-laguntzaileari ahal den neurrian laguntzea oso inportantea da, psikiatria eta pedriatrian eskaintzen duen laguntza handia delako oso, eta, aldi berean, tratamendua ematen dihardute gainontzeko profesionalei ere ekarpen handia egin diezaiekeelako.

Hala ere, prebentzioari ere lekua egin behar zaio: haurrekin dihardutenei gaikuntzarako informazioa eman; tratu txarrak sortarazten dituzten jokabide indibidual eta sozialak aldatu; komunitatearen sentsibilizazioa; ezkontaurrean nahiz umea ekarri aurretik, gurasoekin jardun, jakiteko ea aldez aurretik haurrei tratu txarrak emateko joera daukaten ala ez, eta, edozelan ere, gurasoak orientatzeko; eta baita haurrekin dabiltzan profesionalek elkarrekin lan egin dezaten ere, tratu txarrak prebenitzeko esperientziak, informazioa, ideiak eta proiektuak trukatuz.

Legalki, ezinbestekoa da neurri juridikoak zehaztea tratu txarrak prebenitzeko eta, gertatuko balira, tratu txarrok zigortzeko. Honi dagokionean, esan beharra dago juridikoki oraindik ez dagoela garbi zehaztuta tratu txarren kontzeptua, beraz, definizio zehatz eta mehatza ezinbestekoa dugu kasu bakoitzari dagokion zigorra ezarri ahal izateko. Behin tratu txarren gaineko sistema juridiko egokia egituratzen denean, herriak bereganatu egin beharko du legea betetzeko dagoela. Horrela, gertakari iraingarri eta mingarriok saihestu ahal izango dira.

Haurren bati emandako tratu txarren berri jasotzean, sarritan bururatzen zaigu konponbidea hauxe dela: batetik, arriskua dagoen lekutik aldentzea haurra; bestetik, erasotzaileak gogor zigortzea. Batzuen iritziz, zigorrak berez ez du erasotzailearen jokaera aldatzeko balio, baina kontua da zigorrak hor daudela, nahiz eta ez diren beharko luketena bezain espezifiko eta gogorrak. Zigorrok ez dutela ezertarako balio? Ba agian ez dira egokiak izango, azken finean, euren helburua ez dutelako betetzen, hau da, jokaera zital hauek ebitatzea.

## *Gizartearen kontzientzia, ezinbesteko tresna*

Arazo honen inguruan gizartea kontzientziatzea derrigorrezkoa da baldin eta prebentzio mailan eta eraginkorki aurrera egingo badugu. Gaur egun, sarritan, indarkeriazko jokaera hauek ezkutuan geratzen dira. Hori dela eta, komunitatearen sentiberatasuna piztu beharra dago, tratu txarra gertakari sozialtzat onar dezagun, ulertzen oso zaila bada ere, arazo larria delako, eta benebenetakoa.

Gizarte-kontzientzia hori sortu eta garatu beharra dago, komunitatea osatzen dugunok arazo honen aurkako borrokan esku har dezagun. Benetan garrantzitsua da jokaera pasiboari behin betiko uztea, eta, beti ere, tratu txarren berri jasotzean, dagokien agintarien aurrean salaketa egitea.

Arazo honi aurre egiteko errehabilitazio eta pre-

bentzio neurriak egon badaude, baliapide juridikoak tartean; dena dela, kontuan hartuta muga nabarmenak dituztela, behar-beharrezkoa da berauen edukina sakonki berraztertzea.

Arazoaren inguruan hartu beharreko neurriek ez dute neurri isolatuak izan behar. Sistema baten barruan zentzuzko osagai behar dute izan. Horrexegatik, unitate administratiboak eratu behar dira kasu hauen ikerketan buru-belarri jarduteko.

Ahalegin hauek guztiak sendotu egingo lirateke baldin eta sektore pribatuak lagunduko balu, arazo honetaz arduratzen diren talde edota elkarte zibilen bitartez. Azken finean, tratu txarren prebentzio eta errehabilitazioa ez daude-eta agintarien esku bakarrik, denon esku baizik. Herritar guztion betebeharra da -betebehar soziala eta morala- tratu txarren biktimez arduratzea. Labur-labur esanda: denon arazoa da.



GUIA DEL NIÑO. 98ko zkia

Kontuan izan behar dugu tratu txarrak jasaten dituzten adin-txikikoak ez direla euren burua defendatzeko gai eta ia ez daukatela aukerarik euren min eta oinazea adierazteko. Zerk bultza dezake gizakia -espezieen artean aurreratuena eta arrazoiduna- haurrei tratu txarrak ematera? Galdera oinarrizkoa eta era berean gaitza erantzuten. Ulertezina da, krudela, zentzubakoa... Oraingo neska-mutikoak geroko helduak izango dira. Euren geroa euren orainari lotuta dago eta euren oraina ondo babestuta egotean datza. Honetaz jabetzen ez garen artean, gero eta mundu kaotiko eta izugarriago baterantz abiatuko gara.

# Prebenitu eta berdindu

## ESKOLAREN ERANTZUNKIZUNA HAURREN ONGIZATEA BERMATZEKO ORDUAN

Platero Eskolako Hezkuntza Taldea/E.O.E.P. Umeendako Arreta (Equipo de Orientación Educativa Psicopedagógica)

MI BEBE Y YO. 60. zkia. 97ko maiatza

Familia batzuetan neska-mutikoen premiei erantzungo dituen "behar den moduko jarrerarik" ez dagoenez, Eskolaren erantzunkizuna da egoera horiek detektatzea. Sentsibilizazioa eta jarduna bi mailatan landu behar dira: **prebentzio** mailan eta **eskuhartze** mailan.

### 1. ABIAPUNTUA

Madrileko Komunitateko herri batean gaude, Mecon, alegia. Mecoko biztanlegoa larregi eta bizkorregi ari da hazten. Bertan Platero izeneko Haur Eskola dago. Eskola hau Madrileko Komunitateko Sare Publikoan txertatuta dago eta bertan 0-6 urte bitarteko haurrak eta berauen familiak dabiltza. Platero Eskolan ondoko egoerok konpondu edo behintzat arintzeko ahaleginak egiten dituzte:

•Haurren beharrizanei behar bezala aurre egiteko errekurtsorik ez daukaten familiak. Ez gara errekurtso ekonomikoez bakarrik ari; aita-amen heldutasun gabeziaz, informazio faltaz, hezkuntza eskasaz, kultur deserroketaz eta enplegu eskasiaz ere ari gara.

•Ama gazte-gazteak; hainbat ume ekarri dutenak; umeak hazi eta etxea zaindu beste ardurarik ez dutenak; daukaten bizimoduaz batere pozik ez daudenak:

-Batzuek, "etxekoandre" paperaz gustura dauden arren, ez daukate inolako harremanik beste pertsona helduekin amatasunaz edo beste kontu batzuez berba egiteko.

-Beste batzuk, ordea, ez daude etxekoandre paperaz batere gustora, eta, gainera, euren burua baztertuta ikusten dute emakumearen lan-munduratzea askatasun eta aurrerapenaren mito bihurtu den garaiotan.

...Honek guztiak eragin handia dauka guraso eta seme-alaben arteko harremanetan, gurasoen interesak eta umeari eskaini beharreko ardura ez datozelako bat.

## 2. HEZKUNTZA PROIEKTUA

Orain arte esandakoa kontuan hartuz, ondoko hiru familia-egoera hauek nabarmentzen dira eskolan:

1. Trebetasun falta haurrarekin dituzten harremanetan.

2. Haurraren gaineko ardura, kezka eta esperientziak trukatu beharra.

3. Kasu kezkagarriak: indarkeria, utzikeria eta arduragabekeria. Zorionez, gutxitan gertatzen dira kasuok.

**Hezkuntza Proiektua** errealitate hauei aurre egiteko lehen pausua da: oinarrizko pausua, hausnarketa eta analisia ardatz dituena.

Hezkuntza Proiektuaren bitartez, inplikatu guztien ADOSTASUNA lortu nahi da, beti ere ikastetxearen helburu nagusiak zehazten dituen markoaren barruan. Helburu hauen artean bat aipatuko genuke, oinarri-oinarrizkoa dena:

### ESKOLAREN EZAUGARR IA

**•Hezkuntza integratzailearen aldekoak gara; baita berdintasunaren aldekoak ere.**

### HEZKUNTZA PROIEKTUAREN XEDEA

Haurren hezkuntza-eskubidea bermatzeaz gain, euren beharrizanak ere behar den moduan asetzea, aurreiritzi arrazista, kultural eta sozialen kontrako sentsibilizazioa bultzatuz:

•Edozein pertsona, gutxiengo edo herrik bizitzaren ikuskera propioa eduki dezakeela onartuz.

•Haurren arteko berdintasuna indartuko duten bizi-esperientzia eta harremanak bideratuz.

•Haur bakoitzaren berezitasuna kontuan izanik, garapen pertsonala suspertu eta aintzat hartu.

•Haurren arteko desberdintasunek edota gabeziek sortzen dituzten arazoei konponbidea emanez.

## 3. HEZKUNTZA-JARDUERA

...Baina Hezkuntza Proiektua ez da xedeen zerrenda hutsa. Hezkuntza proiektuak gure lanaren nondik norakoak zehazten ditu, praktikan garatu eta erabili beharreko jardunbideak.

Azpimarratutako xedearen barruan, arrisku sozialari buruzko hezkuntza-lan inplizitua dago. Lan hau garatu ahal izateko, bi ildo nagusi aipatuko ditugu:

- PREBENTZIOA
- ESKUHARTZEA

### PREBENTZIOA

Haurrak eta familiak hartuko ditugu kontuan:

•**Haurrak**: haur bakoitzari etenbako jarraipen sistematikoa egin.

•**Familiak**: informazioa, prestakuntza, harremanak... Aspektu hauek guztiak zaindu.

### JARDUN-GUNEAK :

### 1. TUTORETZA PLANAK:

Lan-Egitarau bat prestatuko dugu. Horrela, tutorearen lana zentzuz, edukinez eta egitura aproposaz jantziko dugu.

Eskuhartze-guneak:

•**Haurrekin:**
- Banakako jarraipena.
-Egokitze curricularrak.
•**Familiekin:**
-Gelako bilerak.
-Tutoretzak talde txikitan:
  •Interesa duten gaien gaineko tutoretzak.
  •Ekintzen plangintza.
-Banakako tutoretzak.
•**Gela bakoitzeko haurrekin:**
-Plangintza.
-Ebaluazioa.

2. GURASOEN ESKOLA

Gurasoen Eskolaren helburuak ondokoak dira:

•Adinean aurrera egin ahala haurrek jasaten duten eboluzioa nolakoa den, beharrizanak zeintzuk diren eta zirkustantziek zenbaterainoko eragina izan dezaketen aztertu. Hau guztia lagungarria izango da gurasoentzat, eguneroko bizimoduan euren seme-alabek izan ditzaketen arazoei aurre egiteko.

•Hezkuntzaren erantzukizuna gurasoen artean partitzeko aukera eskaini, edozein zalantza, kezka, edota bizipen elkarren artean aztertuz.

•Familia hezkuntza kontuetan trebatu, haurrekiko harremanak zentzuz gara daitezen.

ESKUHARTZEA

Zertan datza?

•Batetik, arrisku sozialaren adierazleak denboraz detektatzean datza. Beharrezkoa da informazio hori profesionalek egiaztatzea.

•Bestetik, haurrekin diharduten zerbitzuak auzolanean jartzean datza, horrela, lana eraginkorragoa izango da eta.

ZERBITZUEN KOORDINAZIOA

Meco-ko Haur-Zainketarako Koordinakundea behar bezala trebatzeari ezinbestekoa irizten diogu. Koordinakunde honetan, Meco-ko adin-txikikoei arreta eskaintzen dioten zerbitzu guztiek hartzen dute parte, "Eskolaren Laguntza Haurra Babesteko" deritzon Programaren lankidetzaz (10-Taldea).

**KOORDINAKUNDEA**

•Zerbitzu Sozialak
•Hezkuntza-zerbitzuak: 10-Taldea, Ikastetxe Publikoa, Haurtzandegia, Umeen Etxea, EOEP.
•Osasun zerbitzuak: pedriatra.
•Beste zerbitzu batzuk: Osasun Mentala, Cáritas, Gazte Zerbitzua.

Haurtzandegia Koordinakunde barruan egotearekin zera lortu dugu:

•Ekintza koordinatuen eraginkortasuna egiaztatzea.
•Profesionalen laguntza eta orientabidea gure esku izatea.
•Zenbait egoerak sortarazten duen larridura arintzea. Arrisku soziala prebenitu eta detektatzeak daukan garrantziaz jabetzea; baita lan horretan erantzukizun zuzena dugula onartzea ere.
•Arazoei konponbidea topatzea oso garrantzitsua dela konturatzea.

**KOORDINAKUNDEAREN ZEREGINAK**

| INFORMAZIOA | EKINTZEN ANTOLAKUNTZA | ESKUHARTZEA |
|---|---|---|
| • Baliapideen mapa | • Emakumearen astea | • Detekzioa (tutoreak) |
| • Informazio hitzaldiak | • Prestakuntza ikastaroak | • Eskuhartze proposamena. |
| | • Gurasoen Eskola | • Jarraipena |

## 4. ESKUHARTZE EREDUAK

AURREZ KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Garrantzi handia dauka, hezkuntzaren munduan gabiltzanon zalantzak argitzeko, arrisku sozialari teoria mailan heltzea, talde-lana bultzatzea eta baita profesionalen aholkuak jasotzea ere.

Prestakuntza

Zer da arrisku soziala?

Zela detekta daiteke?

Zer egin behin detektatzen dugunean?

Zer baliapide daukagu eskuhartu ahal izateko?

Zalantzak

Behaketak "akusazio datuak" al dira?

Jasotzen ditugun datuak isilpean gorde behar al dira?

Zela neurtu galdetegi baten bitartez arrisku soziala?

Zeintzuk dira eskolaren aukerak familiaren esparruan eskuhartzeko?

Hona hemen eskuahartze eredu bi, eskolan detektatutako kasu biri ezarritakoak:

## 1. KASUA

**2 URTEKO NESKATILA**

AURREKARIAK

•Lehen urtean bere amak zaindu zuen. Ama toxikomanoa zen.
•Gero Madrileko Komunitatearen babespean geratu zen, erabat jareginda zegoelako.
•Gaur egun amaren izeba batek hartu du etxean, bere hiru seme-alabekin batera.



EPSTEIN, J. RADIGUET, Ch. *L'Explorateur nu.*
Editions Universitaires, 1982

ARRISKU ADIERAZLEAK

•Aztoramena, kabitu ezina, agresibitatea.
•Arau eta muga gabezia.
•Bihurrikerien bitartez, helduen arreta erakarriz, afektu bila ibiltzea.
•Garbitasun eza.
•Antsietate larregi jateko orduan.

ZERBITZU ESPEZIALIZATUENDAKO INFORMAZIOA: 10-TALDEA

•Galdetegi bat bete.
•10-Taldeak jasotako emaitzak itzuli:
-Haur-Zainketarako Koordinakundeari.
-Tutoreari.
•Zerbitzu desberdinen bidēz, familiaren berri jaso.
•Eskuhartzeko proposamena.
•Kasuaren gainean erantzukizuna hartuko duen zerbitzua zein izango den zehaztu.

ESKUHARTZEA

Kasu honek zerbitzu guztiak ikutzen ditu.

•Jardunbideak:

-Errefortzu positiboa erabili.
-Tratua ahalik eta naturalena izan dadin saiatu.
-Mezu positiboa indartu (arazo baten aurrean, konponbideak azpimarratu).
-Familiatik datorren informazioa eta familiari buruzko informazioa egiaztatu.

**•Haur Eskola**

IZEBAREKIN

•Harreman ona izan, komunikazioa galdu barik.

•Eskolako obligazioak bete egin behar direla azpimarratu: asistentzia, bilerak, parte hartzea, ordutegiak, garbitasuna... Hau guztia ea zuzen betetzen den kontrolatu.

NESKATILAREKIN

•Bere jarrera aldarazteko teknika eta estrategia desberdinak erabili.

•Afektua eskatzen duenean, kasu egin.

•Neskatilari arreta eskaini, hori bai, beti ere erakutsiz arreta osoa ez dagokiola berari, gainontzeko haurrek ere helduaren arreta merezi dutela.

•Lanean ari denean, modu positiboan lagundu.
BESTE FAMILIA BATZUEKIN (GELAN)

•Neskatilaren agresibitate edo errebeldiaren lekuko izanez gero, egoera bere onera ekartzen saiatzeko eskatu; eta beste hainbeste egin dezatela gainontzeko umeekin ere.

•Neskatila begirunez eta maitasunez har dezatela, berari buruzko gauza txarrik esan barik.

**EBOLUZIOA**

Kasu gaitz baten aurrean gaude. Arazoaren sustarrak familian bertan daude. Dena dela, aurrerapausu txikiak ematen ari gara eta hau pozgarria da oso.

GAUR EGUN KASUARI JARRAIPENA EGITEN DIHARDUGU.

## 2. KASUA

**4 URTEKO NESKATILA**

**ARRISKU ADIERAZLEAK**

•Itxura txarra: desnutrizioa, garbitasun eza.
•Samur ikaratzen da; triste-triste egoten da; ez du arretarik jartzen;ez dago batere motibatuta; babesa behar duela ematen du; beti heldu baten itzalpean dabil...
•Daukan adina edukita, igartzen da atzeratu samarra dela: txikiegia eta geldoa da; bere jokaera, lengoaia eta ohiturak ez dira 4 urteko neskatila batenak...

**ZERBITZU ESPEZIALIZATUENDAKO INFORMAZIOA: 10-TALDEA**

•Galdetegi bat bete.
•10-Taldeak jasotako emaitzak itzuli:
-Haur-Zainketarako Koordinakundeari.
-Tutoreari.
•Zerbitzu desberdinen bidez, familiaren berri jaso.
•Eskuhartzeko proposamena.
•Kasuaren gainean erantzukizuna hartuko duen zerbitzua zein izango den zehaztu.

**ESKUHARTZEA**

MEDIKUNTZA ZERBITZUAK
•Analitika sakona.
•Neskatilaren beharrizanei eta familiaren egoera ekonomikoari egokitutako menuak prestatu.
•Puntuan behin medikuarenera eramaten dutela ziurtatu.

ZERBITZU SOZIALAK
•Familiari laguntzak eskaini: laguntza ekonomikoa, enplegua.
•Ama trebakuntza ikastaroetara joatera animatu.

HAUR ESKOLA
•Dieta sendogarria jarri.
•Estimulazioa:
-E.A.T.-ren ( Equipo Atención Temprana) laguntza eta ahalkuak jaso.
-Egokitze kurrikularrak.
•Amarekin lantzeko:
-Konfidantza eta harreman ona.
-Banakako tutoretzak, konpromezuak hartu eta konpromezuoi eutsi.
-Autoestima landu eta lagundu.

**EBOLUZIOA**

•Familiaren jokaera aldatu egin da. Ondorioak:

-Neskatilak itxura hobea du eta garbiago ibiltzen da.
-Hobeto elikatzen da orain.

•Ikaskideekin harremanak:

-Gelan integratu egin da eta harreman onak ditu.
-Gainontzeko haurrek begirunez tratatzen dute.

•Motibazioa eta interesa erakusten du:

-Jolasetan.
-Harremanetan.
-Edozein ekimenetan.

Helduekin harremanak:

-Lehen baino hobeto moldatzen da bakarrik.
-Oraindik ere hutsune afektiboa igartzen zaio.

GAUR EGUN KASUARI JARRAIPENA EGITEN DIHARDUGU.

**Erreferentzia pertsona:**

**Carmen López Romera (Zuzendaria)**
**Platero Haur Eskola**
**Camino Virgen de la Cabeza kalea.**
**Telefonoa / faxa 886 12 57**

# Haurrei ematen zaien tratu txarra eta hezkuntzaren babesa



*Javier Martínez Casanova*
***Eskolaren Laguntza Haurrak Babesteko Programan dihardduen teknikaria.***

*MADRILEKO KOMUNITATEKO HEZKUNTZA ETA KULTURA KONTSEILARITZA*

"Eskolaren Laguntza Haurrak Babesteko" izeneko Programaren barruko esperientzia, Madrileko Komunitatean burutu zena.

Haurren osasun eta ongizateaz arduratzen den gizartea gizarte osoaren osasun eta ongizateaz arduratzen ari da. Zenbat eta gehiago arduratu haurrez, orduan eta gizarte osasuntsuagoa.

Aurten, 1997an, gobernu daniarrak kode penalean sartu berri ditu gurasoek seme-alabei noizbehinka ematen dizkieten belarrondokoak. Legeak indarrean egoteak ez du esan nahi beti betetzen direnik, baina ukaezina da Danimarkako adibideak erakusten duena: edozelako tratu txarrak jasaten dituzten haurrekiko sentiberatasuna indartuaz doala hala gizartean nola erakundeetan.



Nabarmena da datu honen garrantzia baldin eta Estatu Batuetan duela mende bat pasatxo gertatutakoa gogora ekartzen badugu. Izan ere, hura izan baitzen lehenengo aldia tratu txar fisikoa eta gurasoen utzikeria salatu zuen neskatila batek epaiketa bat irabazi zuena. Eskerrak orduko hartan epaiketa aurrera atera zuena "Animalienganako Zitalkeria Prebenitzeko Elkarte Amerikarra" izan zena! Neskatila haren animaliatasuna kontuan hartu eta behintzat txakur batek besteko babesa merezi zuela iritziko zioten... Denboran zehar are eta atzerago jotzen badugu, horra hor Iraultza Industrialaren garaiko haurren lan-esplotazioa; hara han Ertaroko haur-trukea; edo Erroma zaharrean aita batek bere haur jaio berriarekin egin zezakeena: haurra onartu eta berak hazi, edo, hala nahi bazuen, esklabu gisa saldu.

Jakinean gaude gure hasierako baikortasunari erraz egin dakiokeela kontra; horretarako, gure egunkarietako gertakarien atalera jotzea besterik ez dago; edo bestela irratietako albistegiak entzun; edo telebista katea desberdinetako albistegiak aditu. Jakinean gaude tratu txarrak oso noizbehinka gertatzen direla gure "lehen mundu" honetan; usu eta ugari, berriz, hirugarrenean. Dena dela, ezin dira ahaztu Haurren Ongizaterako emandako aurrerapausuak eta egindako borrokak. Ezin da ukatu gaur egungo gizartea jarrera txepelak alde batera utzi eta haurraren eskubideekiko sentiberatasuna garatzen ari dela. Era berean, gizartea konturatu da: gizartea bera modu egokian garatuko bada, Haurraren Ongizatea garrantzi handikoa dela, haurraren beharrizanak behar den moduan asetu behar direla.

Haurra babesteko sentsibilizazio-marko orokor honen barruan, azken urteotan hainbat prebentzio ekintza burutzen ari da Madrileko Komunitatean, irakaskuntza-zentruen bitartez, Haurtzaroko Arrisku Soziala babesteko asmoz.

Lan hau Programa baten txertatuta dago, "Eskolaren Laguntza Haurra Babesteko" deritzon Progaman, hain zuzen. Esan beharra dago Hezkuntza eta Kultura Ministeritzak eta Madrileko Komunitateko Hezkuntza eta Kultura Kontseilaritzaren arteko lankidetza-hitzarmenaren barruan dagoela Programa hau.

Uste dugu Programaren izenak -luzetxoa bada ereondo asko azaltzen duela Lantaldea osatzen dugunon nortasuna (egun 14 lagun gaude taldean). Irakasle talde bat gara, eskolaren inguruan -eskola erakundetzat hartuta- lanean dabilena . Gure helburua da eskolaren esparruan ahal dugun neurrian Haurrak Babestea.

Abiapuntua gure lan-lekua da: Eskola. Gure ustez, eskola BEHATEGI APARTA da: alde batetik, leku ezin hobea da Haurren Ongizatea egiaztatu eta finkatzeko; bestetik, Arrisku Soziala sortaraz lezakeen edozein egoera detektatzeko toki paregabea da; azkenik, neska-mutikoen arteko desberdintasun sozialak eta arazo indibidualak arintzeko leku aproposa da eskola.

Urte hauetan guztietan zehar, Eskolan eta Eskolarentzat propio, haurrak tratu txarretatik babesteko sarea antolatzeari ekin diogu sare publikoko haur-eskola eta lehen mailako irakaskuntza zentruetan. Ikastetxe bakoitzean haurren arazoen gaineko informazioa zabaldu dugu. Horrela ba, tratu txarren alderdi oinarrizkoenak eta nabarmenenak sakonki aztertu ditugu. Halaber, aztertu dugu arrisku egoerak nola detektatu eta nola prebenitu behar diren. Gainera, arriskuaren faktore eta adierazleei buruzko informazioa nola sistematizatu behar den hausnartu dugu.

Horretarako, hainbat material sortu eta ikastetxeetan banatu dugu: "Eskolarako Gida. Arrisku Soziala daukaten neska-mutikoen Babesa". Gida honetan, hezkuntzaren munduan dabiltzan profesionalek garrantzi handiko

MI BEBE Y YO. 65. zkia. 97ko urria



informazioa eskura dezakete tratu txarrak eragin litzaketen egoerei aurre egiteko. Gainera, Programari ekin dion Lantaldeak "Detektatze Protokoloa, E-10 Galdetegia" burutu du, adinaren araberako bertsio desberdinez hornitua. Detektatze Protokoloaren bitartez, irakasleek zehatz-mehatz sistematiza dezakete eguneroko behaketan jasotzen duten informazio garrantzitsuena. Horrela, neska-mutikoen balizko arrisku zein babesbako-egoerak hobeto antzeman daitezke eskolan bertan. Material hau etangabe ari gara gaurkotzen eta hobetzen.

Materiala gaurkotzeko, lege berriak eta lege hauei dagozkien araudiak hartzen ditugu kontuan; esate baterako, estatu mailan, 1996ko urtarrilaren 15eko "Adin-txikikoari Babes Juridikoa Emateko Legea" (1/1996 Legea). Komunitate mailan, berriz, oso kontuan hartu dugu 1995eko martxoan agertu zen "Madrileko Komunitateko Haur eta Nerabeen Eskubideak Bermatzeko Legea". Azken lege honen barruan, Hezkuntza Babesari buruzko hainbat artikulu dago. Artikulu hauen arabera, dagokion administrazioak Arrisku Soziala Prebenitzeko Programak jarri beharko lituzke martxan ikastetxeetan. Gaur egun hauxe da gure Lantaldearen helburu nagusienetako bat.

Horrelaxe, Programa hau martxan jarri dugun lekuetan, irakasleekin batera izan ditugun bileretan (894 ikastetxe guztira 96-97 ikasturtera arte), konturatu gara eskolak zailtasun handiak dituela Babes Sozialari dagozkion hainbat alderdi behar bezala garatzeko, bestela esanda, desberdintasunak arintzeko. Edozein modutan ere, irakaslegoak ondo asko daki eskolan, aspektu kurrikularra ezezik, gure gizarte demokratiko honi eusten dioten baloreak ere zaindu behar direla. Ildo honen barruan ulertu behar da, adibidez, diskriminazio positiboarena, azken batean, euren beharrizanak behar den moduan asetzeko aukera gutxiago dauzkaten neska-mutikoen onerako da eta.

Lehen esan dugun moduan, gure Taldea beste lan batean murgilduta dago. Lan hau ikerkuntzari lotuta dago eta helburua da eskolaren bitartez Arrisku Soziala detektatzeko tresna (E-10 Galdetegia) hobetu eta zorroztea. Madrileko Complutense Unibertsitateko Psikologia Fakultatearen lankidetzaz burutu dugun lan hau baliogarria izan zaigu detektatze-tresnaren zehaztasuna eta espezifikotasuna hobetzeko. Detektatze-mekanismo hau hobetu eta hedatzeko daukagun gogo bizia gora-behera, kasu bakoitzari eskainiko diogun arreta zentzuzkoa izango da beti ere. Baina baldin eta haurren bizi-kalitatea egunean-egunean hobetuko badugu, *detektatu-arreta eskaini* binomio konplexua ahal denik eta ondoen lotzen ahalegindu beharko dugu. Arrisku egoera batek sor ditzakeen arazoei modu eraginkorrean egin behar zaie aurre; horretarako, eskaini beharreko arreta behar den modukoa izango bada, laguntza-mekanismoek (kasuari eskaini beharreko arreta) salaketa-sistema eraginkor batean oinarrituta egon beharko dute (detektatu eta jakinarazi).

Horixe da, hain zuzen ere, gure Talde-lanaren muina: "Salaketarako joera osasuntsu" hori sortarazi; hezkuntza munduan dabiltzan profesionalak benetako prebentzioaren kulturan murgildu; familia bakoitzaren pribatutasuna eta intimitatea errespetatuz, beti ere haurraren onerako lanean jardun.

Luzea da bidea; argia norabidea. Goian aipatu dugun bezala, Haurraren Ongizatearen alde egitea da gure jomuga. Gure komunitateko haurren beharrizanak ahalbait ondoen asetzen saiatzen gara, haurrei ere euren eskubideak ziurtatu behar dizkiegulako; gaurko herritarrak izanik, geroa zor diegulako (ez ditugu soilik geroko herritartzat jo behar); etorkizuneko gizartea eurek ziurtatu eta defendatuko dutelako... Hauxe da guk proposatzen dugun haur-kontzeptu unibertsala; hauxe da gure bidea. Herritarren zati honen -gaztetxoenen- alde egitean datza gure lana; denon lana.

# Nola jokatu eskolan haurrek tratu txarrak jasaten dituztenean

*Jose Mª Lezana Angulo*
*Haur eta Gazteen Atala*
*GIZARTEGINTZA*
*Gipuzkoako Foru Aldundia*

## heziketako esperientzia bat

Artikulu hau idazten hasterakoan iruditzen zait gai honetaz hausnartzeko premia handia dagoela. Sarri askotan zailtasunak izaten ditugula geure lana ondo egiten ari ote garen ziur egiteko: Lan horri esker gizarte hobea, zuzenagoa eta gutxien daukatenekin solidarioagoa eraikitzearen alde ari ote garen jakiteko. Eta, heziketaren ikuspegitik, geure haurrekin egiten dugunak herentziaz utziko dieguna baino zerbait hobea eraikitzeko aukera emango dieten baloreak piztuko ote dizkien.

Izan ere, helburu hori bera baitu oinarri hezkuntzako profesionalek eta gizarte zerbitzuetan diharduteneк egiten duten lanak: gizarte hobea sortu eta finkatzearen alde egitea.

Gizarte zerbitzuetatik haurrak atenditzeko zerbitzuez hitz egiten dugunean, orduan handiagoak dira hobekuntza arloarekin dauden parekotasunak: haurrak atenditzen ditugu, harremanak ditugu haurren familiekin, ahaleginak egiten ditugu ahalik eta egoerarik onena izan dezaten...

Hausnarketa horiek, nire ustez hain garbi daudenak, ez dirudi hain garbi daudenik eguneroko lanean buru-belarri sartzen garenean. Presak eta eginbeharrak eraginda geure lan eremuan isolatzen gara, guk geuk egiten dugunaz haruntza beste ezertxo ere ez dagoen irudipen hutsala daukagula.

Haurra ikasgelatik kanpo gertatzen zaizkionak baldintzatuta dagoela, are nabarmenagoa da tratu txarrak, atentzio gabezia, abusuak eta abar nozitzen dituzten haurrekin. Esperientzia hori bizi duen haurra nekez egongo da prest guk proposatu nahi diogun heziketa prozesuan parte hartzeko, premiarik oinarrizkoenak betetzen ez zaizkion bitartean.

Hori dena diot bakar-bakarrik ondorio honetara iritsi nahi dudalako, alegia, eguneroko lanean ikusten dugula haurrak atenditzen ditugun profesional guztiok, bai gizarte zerbitzuen arloan ari garenok, bai hezkuntza arloan ari zaretenok, denok lurralde berean ari garela, eta behartuta gaudela elkarrekin topo egitera eta elkar ulertzera geure lanaren helbururik garrantzitsuenak lortu nahi baditugu.

## AURREKOAK

Gizarte zerbitzuen arloan haurrak babesteko ardura duen zerbitzu batekoa naizenez, derrigor azaldu behar dut zer-nolako lana egin dugun azken urteotan arlo honetan.

Labur esanda, hamar urte besterik ez dira babes eskumen hori gizarte lanaren baitan dagoela, 1987ko azaroan 21/87 Legea eman zenetik zehazki, lege horren bidez izan baitzen eskumen aldaketa, Justizia Ministeriotik (Adingabeen Tutoretzako Auzitegia) autonomi elkarteetara (Gizarte Zerbitzuetako departamentuak), eta gure kasuan, Lurralde Historikoen Legea dela medio, foru aldien esku bukatu zuen.

Gai honek, beraz, oso historia laburra du, baina urratutako bidea, urte batzuetan zalantzan ibili ondoren, bere emaitzak erakusten hasi da, eta gero eta garbiago heltzen dio bere gain utzitako eginkizunari.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Gazteen Atalean, zehazki, bertako partaidea naiz ni. Poliki-poliki lagun talde bat eta lan egiteko sistematika bat egituratu dira eta piskanaka-piskanak sendotzen joan dira prestakuntza aldetik egindako ahalegin handiari esker eta baita beste profesionalekin izandako elkartrukeari esker ere, zeinen bitartez gure lanaren oinarriak finkatzen joan baitira.

Ibilbide horren barruan, 1995.urtean geure buruari planteatu genion komunikazio bide bat ireki behar genuela beste profesionalekin, hau da, erakunde ezberdinetatik haurrak eta familiak atenditu zituzten eta noizean behin babesgabeziako egoerei aurre egin behar izaten zieten profesionalekin. Gure helburua hauxe zen: elkarrekiko topalekurik ez edukitzeagatik eta elkarren artean guztiz ezezagunak izateagatik eguneroko lanean topatzen genituen zailtasunak eta nola konpon zitezkeen ikustea. Hala, prestakuntzako jarduera bat antolatu genuen, eta hari esker sei hilabetean jardun genuen elkarrekin hitz egiten, eztabaidatzen eta elkarrengandik etengabe ikasten. Jarduera hartan arlo hauetako profesionalek parte hartu zuten: Hezkuntzakoek, Osasunekoek (pediatrak eta adimen osasuneko profesionariak), udal nahiz autonomia mailako poliziakoek, justiziakoek (adingabeen fiskala eta adingabea nahiz familia epaitegietako teknikariak), udaleko gizarte zerbitzuetakoek eta haurrak atenditzeko gizarte zerbitzuetakoek.

Jorge Barudy irakaslea –Belgikako SOS Enfancee-Famille Zerbitzurako psikiatra zuzendaria zela "Tratu txarrak jasaten dituzten haurrekin sare mailan nola jokatu" izeneko mintegian gai asko eztabaidatu genuen haurrek jasaten dituzten tratu txarren inguruan, eta ondorio batzuk ere atera genituen, baliagarriak izan behar zutenak gaian tratatzeko diren zerbitzu guztien artean benetako koordinazioaren antolaketan sakontzeko geroan egin litezkeen lanak bideratzeko. Ondorio horien artean, eta hariari lotuta daudenak bakarrik aipatzearren, honako hauek daude:

1. Profesionariak ondorengo gaietan prestatu beharra dago: tratu txar motak eta horiek antzemateko eta haien berri emateko bideak.
2. Bide adarrak eta jarraibide errazak ezarri beharra dago.
3. Garrantzi handia du jokabideak ezartzeak, fase bakoitzeko eginkizunak definitzeko eta lan egiteko bideak eskaintzeko.

Esperientzia horren ondorioz lortutako emaitzei jarraipena emateko asmoz, elkarrekiko zenbait topaketa izan genituen hezkuntza nahiz gizarte zerbitzuetako profesionalek 1996. urtean, eta horien ondorioz sortu zen hezkuntza arloko profesionalek 1997. urtean prestakuntzako topaketa batzuk egiteko proposamena, jarraian azalduko ditugun topaketak, hain zuzen ere.

## PRESTAKUNTZAKO ESPERIENTZIA

Orientazio Pedagikoko Zentroen (OPZ) lankidetzarekin Gipuzkoako ikastetxe guztiei dei egin genien. Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarainokoei, Gipuzkoako eskualdeetan eman behar ziren hitzaldietara joan zitezen.

Guztira 20 hitzaldi izan dira eta 10 talde antolatu dira. Talde guztiak, beraz, bina hitzalditara joan dira: lehenengoan hezkuntzako profesionalek bakarrik parte hartu dute; eta bigarrena, berriz, eskualde bakoitzeko udaletako gizarte zerbitzuetako profesionalen partaidetzari irekia.

Saioak ondorengo eskemaren arabera eman ziren:

1. Zer dira tratu txarrak?
2. Zergatik gertatzen dira?
3. Nola jakin haur batek tratu txarrak jasaten dituela?
4. Zer ondorio ekartzen dituzte?
5. Nola lagundu dezake eskolak egoera horrekin bukatzeko?
6. Zein dira eskolaren eskubideak eta betebeharrak?
7. Zer egin eta nora jo?
8. Zer gertatzen da gero? Nola lan egiten dute gizarte zerbitzuek?

Hitzaldietara 175 profesional joan ziren guztira, Gipuzkoa osoko 113 ikastetxe ordezkatzen zituztenak. Aldez aurretik, dei egitearekin batera, triptiko bat bidali genuen ikastetxe guztietara, proposamen labur bat jasotzen duena haurra arriskuan edo babesgabezian noiz dagoen antzemateko eta horren berri emateko eskolak nola jokatu behar duen azaltzen duena.



EPSTEIN, J. RADIGUET, Ch. *L'Explorateur nu.* Editions Universitaires, 1982

Jarduera honen hasieran helburu hauek jarri genituen:

1. Oinarrizko informazioa ematea haurrek jasaten dituzten tratu txarren arazoari buruz, tratu txarrak antzemateko eta horien berri emateko bideei buruz, eta jokatzeko moduei buruz.
2. Bermatzea ikastetxe bakoitzean gaiaz dakien profesional bana egon dadin.
3. Orokor bihurtzea haurrekin zerikusia duten zerbitzu guztiek jokatzeko gida komun bat erabil dezaten.
4. Hezkuntza arloa sentsibilizatzea berak tartean egon beharra daukala arazoari ondo heldu ahal izateko, hau da, arrisku eta babesgabezia egoerak goiz antzeman eta horien berri eman daitezen lortzeko.

Erreferentzia gisa Gizarte Arazoetako Ministerioak argitaratutako Haurrek Jasaten Dituzten Tratu Txarrak Antzeman, Horien Berri Eman, Ikertu eta Ebaluatzeko Gida erabilita, eta kontutan hartuta bestelako erakunde eta elkarteek argitaratutako beste gida batzuk ere (ikus bibliografia), topaketa horiek egin genituen eta aurretik jarri genituen helburuak ondo bete ziren.

## EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Jardunaldietara joan zirenek egindako balorazioan denak nahiko bat datoz esatean aztertutako gaiak, batetik, berriak, eta bestetik, eskola barruan lan egiteko baliagarriak gertatu zirela.

Nahiz eta ez lortu goian aipatutako hezkuntza aldietako ikastetxe guztiak ordezkatuko zituzten profesionalak egotea, izan den partaidetza ontzat emateko bezain ordezkaritza zabala izan zuten, gure iritziz.

Egindako saioetan sarri errepikatutako iradokizun batzuk:

- Beharrezkoa da irakasle guztiak problematika honetan eta jokatzeko sisteman partaide bihurtzea, ikaste txeetako klaustroei zuzendutako prestakuntza ekintzen bitartez.
- Koordinazio sistemak ezarri behar dira, errazagoa izan dadin informazioa elkarri ematea eta antzemandako egoeretan bizkor jokatzea.
- Aurreratu beharra dago haurren premiak baloratzeko irizpideak sakontzen, jokabideak eta erabakiak adosteko.
- Badaude arazo batzuk hausnartu beharra eta irtenbide egokien bila aurreratu beharra daukatenak: nerabeen arteko indarkeria, tratu txar emozionalen egoerak, eskola huts egitea...
- Denak bat etorri ziren, ez bakarrik arazo horiei heltzeko bitartekoak eskuratzen aurreratu beharra dagoela esatean, baita ere oso onuragarritzat jotzean lan arlo honek azken

urteotan izan duen bilakaera eta jokatzeko zabaltzen diren aukera. Izan ere, eskolaren, gizarte zerbitzuen eta gizartean dauden beste eragile batzuen artean elkarrekin jokatzea ahalbidetzen dute.

• Era berean, denak bat etorri ziren topaketa hauei jarraipena emateko proposamenarekin, komunikazio eta koordinazio bideak sendotu eta gainetik baino ikutu ez ziren gai batzuk sakondu behar direla.

Gure aldetik, orain arte azaldutako guztia kontutan hartuta, geure buruari planteatzen diogu udal edo eskualde mailan sareko lana indartuko duten jarduerak bultzatu beharra ez ote dagoen. Sare horretan gaiarekin zerikusia duten arloa guztietako profesionalak sartuko lirateke: Hezkuntzakoak, Osasunekoak (pediatria eta adimen osasuna), oinarrizko gizarte zerbitzuetakoak, poliziakoak, bolondresen elkarteetakoak, aisialdiko taldeetakoak. Sare horren bitartez, osotasunean hartutako jokabideak ezarriko lirateke, dagoeneko eskura dauden bitartekoei etekin handiagoa ateratzearren eta denok batera eta elkarri lotuta jardutearren, hori izango bailitzateke modurik egokiena gure haurren garapenari kalte egin diezaioketen arazoei aurre egiteko.

Horretarako, 1997ko irailetik aurrera eta Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzako arduradunekin batera, orain arte egindako lanaren emaitzak ebaluatu eta jarraiko jokabideak goian azaldutako eran programatzeko asmoa dugu, Gipuzkoako herriak edo eskualdeak hartuta jokatzeko eremutzat, esan bezala.

## BIBLIOGRAFIA


ADIMA: Guía de atención al maltrato infantil. Sevilla: ADIMA, 1993

Arruabarrena, M. I.; de Paúl, J.; Torres, B.; El maltrato infantil. Detección, Notificación, Investigación y Evaluación. Madrid: Ministerio de Asuntos Sociales, 1994

Lobo Aleu, E.: La protección de los niños y niñas en situación de riesgo social. Guía para la escuela. Madrid: Comunidad de Madrid, 1995 (3. edizioa).

López, F. eta beste batzuk: Necesidades de la infancia y protección infantil (2 liburuki). Madrid: Ministerio de Asuntos Sociales, 1995.

López Martin, E. y Álvarez González, M. (zuz.): El maltrato infantil: Guía para maestros. Murcia: AMAIM, 1996.


EPSTEIN, J. RADIGUET, Ch. *L'Explorateur nu.*
Editions Universitaires, 1982



# Baliabideak

LOBO, E. (1995):
*Guía para la escuela.*
*La protección de los niños y niñas en situación de riesgo social.*
Madrid: Comunidad de Madrid. Consejería de Educación y Cultura.




Gida honen bitartez, tratu txarrak eta haur babesgabetuen aurrean Hezkuntzako profesionalen sentiberatasuna piztu nahi da. Horretaz gain, Hezkuntzako profesionalari lagundu eta honen lana erraztea dira gidaren helburuak. Ikasleek izaten dituzten arazoei buruzko informazioa eta arazo horiek nola detektatu azaltzen du Gidak.

PROGRAMA DE APOYO ESCOLAR PARA LA PROTECCION DE LA INFANCIA. COMUNIDAD DE MADRID.

"E-10". Cuestionario para la detección de niños y niñas e situación de riesgo social 6-16 años.

Este cuestionario debe utilizarse cuando se observe que algún niño/a se encuentra en situación de desamparao (ver la Guía de la Escuela).







HAURREKIKO TRATU TXARRAK
MALTRATO INFANTIL
Eskola mailan igarri, aurrea hartu eta ihardun.

- Zer da haurrekiko tratu txarra?
- Hezkuntza ingurunearen garrantzia.
- Hezkuntza alorreko iharduketak. Iharduteko modu arrunta.
- Premiazko egoeretan iharduteko modua.



JAKINGARRIAK
RAFIKOAK
Gai Monografikoa
Eskoletako Esperientziak
Baliabidea
skoletako Esperie